

REAL DECRETO DE 3 DE FEBRERO DE 1881, DE PROMULGACIÓN DE LA LEY DE ENJUICIAMIENTO CIVIL*

(«Gaceta» núms. 36 a 53, del 5 al 22 de febrero de 1881; corrección de errores en «Gaceta» núms. 53 y 64, de 23 de febrero y 5 de marzo)

* El Real Decreto de 3 de febrero de 1881, que aprobó la Ley de Enjuiciamiento Civil anterior, no se ha incorporado en su totalidad.

En esta edición solamente se han recogido las partes del mismo que permanecen en vigor.

Por ello, en el texto se ha utilizado el símbolo [...], en lugar de incorporar el texto derogado.

LEY DE ENJUICIAMIENTO CIVIL

LIBRO PRIMERO

DISPOSICIONES COMUNES A LA JURISDICCIÓN CONTENCIOSA Y A LA VOLUNTARIA TÍTULO PRIMERO

DE LA COMPARECENCIA EN JUICIO

[...] SECCIÓN PRIMERA

De los litigantes, Procuradores y Abogados

[...]

Artículo 4

No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, podrán los interesados comparecer por sí mismos, pero no valiéndose de otra persona que no sea Procurador habilitado en los pueblos donde los haya:

1. En los actos de conciliación.

[...] 5. En los actos de jurisdicción voluntaria.

[...]

Artículo 10

Los litigantes serán dirigidos por Abogado habilitado legalmente para ejercer su profesión en el Juzgado o Tribunal que conozca del proceso.

No podrá proveerse a ninguna solicitud que no lleve la firma del Abogado.

Exceptuándose solamente:

1. Los actos de conciliación.

[...] 3. Los actos de jurisdicción voluntaria de cuantía determinada, que exceda de 400 000 pesetas, así como los que tengan por objeto la adopción de medidas urgentes o que deban instarse en un plazo perentorio.

[...]

Artículo 11

Tanto los Procuradores como los Abogados podrán asistir con carácter de apoderados o con el de auxiliares de los interesados a los actos de

1881EKO OTSAILAREN 3KO ERREGE-DEKRETUA, PROZEDURA ZIBILAREN LEGEA ALDARRIKATU DUENA*

(«Gaceta» 36. zk.tik 53. zk.ra, 1881eko otsailaren 5etik 22ra; okerrak zuzentzea, «Gaceta» 53 eta 64. zk.etan, otsailaren 23koan eta martxoaren 5ekoan)

* 1881eko otsailaren 3ko Errege Dekretua, Prozedura Zibilaren aurreko Legea onetsi zuena, ez da oso-osorik erantsi.

Aitzitik, indarrean dauden zatiak bakarrik jaso dira argitalpen honetan.

Horregatik, testuan [...] ikurra erabili da, indargabetutako zatiak hitzez hitz jartzearen ordez.

PROZEDURA ZIBILAREN LEGEA

LEHENENGO LIBURUA

AUZIBIDEZKO ETA BORONDATEZKO JURISDIKZIOETARAKO XEDAPENAK LEHENENGO TITULUA

EPAIKETAN AGERTZEA

[...] LEHENENGO ATALA

Auzilariak, prokuradoreak eta abokatuak

[...]

4. artikulua

Aurreko artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, interesdunak euren kabuz agertu ahal izango dira, baina ezin izango dira baliatu prokuradore gaitua ez den beste pertsona batez, betiere prokuradoreak dauden herrietan: 1. Adiskidetzeko ekitaldietan.

[...] 5. Borondatezko jurisdikzio-egintzetan.

[...]

10. artikulua

Abokatuak auzilariak gidatuko dituzte, abokatuak euren lanbidean jarduteko legez gaituta badaude prozesuaren gaineko ardura duen epaitegian edo auzitegian.

Ezin izango da ebatzi abokatuaren sinadurarik ez duen eskaerarik.

Salbuespen gisa hartuko dira bakarrik:

1. Adiskidetzeko ekitaldiak.

[...] 3. Munta zehatza duten borondatezko jurisdikzio-egintzak, munta hori 400 000 pezetatik gorakoa bada, bai eta xedetzat presako neurriak hartzea dutenak edo epe luzaezinean eskatu behar direnak ere.

[...]

11. artikulua

Prokuradoreak eta abokatuak ahaldu gisa edo interesdunen laguntzaile gisa bertaratu ahal dira, adiskidetzeko ekitaldietara eta aurreko artikulua

conciliación y a los juicios a que se refieren las excepciones del número 2.º del párrafo segundo del artículo anterior, cuando las partes quieren valerse espontáneamente de ellos.

En estos casos, así como en todos en los que su intervención no sea preceptiva, si hubiere condena en costas a favor del que se haya valido de Procurador o de Letrado, no se comprenderán en ellas los derechos de aquél ni los honorarios de éste, salvo que la residencia habitual de la parte representada y defendida sea distinta del lugar en que se tramite el juicio.

[...] **TÍTULO II**

DE LA COMPETENCIA Y DE LAS CONTIENDAS DE JURISDICCIÓN

[...] **SECCIÓN 2.ª**

Reglas para determinar la competencia

[...]

Artículo 63

Para determinar la competencia, fuera de los casos expresados en los artículos anteriores, se seguirán las reglas siguientes:

[...] 16. En las actuaciones judiciales sobre acogimiento familiar o adopción o en las relacionadas con las funciones de protección encomendadas a las correspondientes entidades públicas, será competente el Juez del domicilio de la entidad y, en su defecto, el del domicilio del adoptante.

En las actuaciones judiciales a que se refieren los artículos 179 y 180 del Código Civil será competente el Juez del domicilio del adoptante.

17. En el nombramiento y discernimiento de los cargos de tutores o curadores para los bienes y excusas de estos cargos, será Juez competente el del domicilio del padre o de la madre, cuya muerte ocasionare el nombramiento, y, en su defecto, el del domicilio del menor o incapacitado, o el de cualquier lugar en que tuviere bienes inmuebles.

18. En el nombramiento y discernimiento de los cargos de curadores para pleitos será competente el Juez del lugar en que los menores o incapacitados tengan su domicilio, o el del lugar en que necesitaren comparecer en juicio.

19. En las demandas en que se ejercitaren acciones relativas a la gestión de la tutela o curaduría, en las excusas de estos cargos después de haber empezado a ejercerlos y en las demandas de remoción de los guardadores como sospechosos, será Juez competente el del lugar en que se hubiere administrado la guardaduría en su parte principal, o

2. Ierrokadan aipatu epaiketetara, baldin eta interesdunok prokuradore eta abokatu haiez baliatu nahi badute, euren erabakiz.

Halakoetan, bai eta haien esku-hartzea aginduzkoa ez den guztietan ere, prokuradorez edo letraduz baliatu denak kostuak ordaindu behar baditu, kostu horien barne ez dira sartuko haren eskubideak, ezta horren zerbitzu-sariak ere, salbu eta ordezkatua eta defenditua den alderdiaren bizilekua dagoenean epaiketaren izapidetza zein tokitan egin eta hori ez den beste toki batean.

[...] **II. TITULUA**

ESKUMENA ETA JURISDIKZIO-EZTABAIDAK

[...] **2. ATALA**

Eskumena zehazteko erregelak

[...]

63. artikulua

Eskumena zehazteko, aurreko artikuluetan aipatutako kasuak baztertuta, hurrengo erregelak aplikatuko dira:

[...] 16. Familia-harrerari edo adopzioari buruzko jardun judizialean, edo, kasuan kasuko herri-erakundearen esku utzitako babes-eginkizunekin zerikusia dutenetan, eskuduna izango da erakundearen egoitza non izan eta bertako epailea, eta, halakorik izan ezean, adoptatzailearen egoitza non izan eta bertako epailea.

Kode Zibilaren 179 eta 180. artikuluek aipatutako jardun judizialean eskuduna izango da adoptatzailearen egoitza non izan eta bertako epailea.

17. Ondasunetarako tutore eta kuradoreen karguak izendatzean edo ematean, eta, kargu horiek desenkusatzean, epaile eskuduna izango da aitaren edo amaren egoitza non izan eta bertakoa, baldin eta izendapena gertatzen bada horien heriotzaren ondorioz, eta, halakorik izan ezean, adingabearen edo ezgaituaren egoitza non izan eta bertakoa, edo ondasun higiezinak zein lekutan izan eta leku horietatik edozeinetan dagoena.

18. Auzietarako kuradoreen karguak izendatzean eta ematean, epaile eskuduna izango da adingabeek edo ezgaituek egoitza zein lekutan izan eta leku horretakoa, edo horiek agertu beharreko epaiketa zein lekutan izan eta bertakoa.

19. Demandetan, horietan tutoretza edo kuradoretza kudeatzearekin zerikusia duten akzioak egikaritu badira, kargu horien desenkusetan, karguok betetzen hasi ondoren, eta, susmopean jardun duten zaintzaileak euren kargutik enkaitzeko demandetan, epaile eskuduna izango da zaintzaren zati nagusia administratzen den lekuan dagoena, edo

el del domicilio del menor.

[...] 22. En las diligencias para elevar a escritura pública los testamentos, codicilos o memorias otorgados verbalmente, o los escritos sin intervención de Notario público, y en las que hayan de practicarse para la apertura de los testamentos o codicilos cerrados, será Juez competente el del lugar en que se hubieren otorgado, respectivamente, dichos documentos.

23. En las autorizaciones para la venta de bienes de menores o incapacitados, será Juez competente el del lugar en que los bienes se hallaren o el del domicilio de aquellos a quienes pertenecieren.

24. En las actuaciones que origine el título VIII del libro I del Código Civil, sobre ausencia, será Juez competente el del último lugar en que haya residido el ausente durante un año dentro del territorio español, y, en su defecto, el del último domicilio.

25. En las informaciones para dispensas de Ley y en las habilitaciones para comparecer en juicio cuando por derecho se requieran, será Juez competente el del domicilio del que las solicitare.

26. En las informaciones para perpetua memoria, será Juez competente el del lugar en que hayan ocurrido los hechos o aquel en que estén, aunque sea accidentalmente, los testigos que hayan de declarar.

Cuando estas informaciones se refieran al estado actual de cosas inmuebles, será Juez competente el del lugar en que estuvieren sitas.

27. En los apeos y prorrateos de foros y posesión de bienes por acto de jurisdicción voluntaria, será Juez competente el del lugar donde radique la mayor parte de las fincas.

[...]

LIBRO II

DE LA JURISDICCIÓN CONTENCIOSA TÍTULO PRIMERO

DE LOS ACTOS DE CONCILIACIÓN

Artículo 460

Antes de promover un juicio, podrá intentarse la conciliación ante el Juzgado de Primera Instancia o de Paz competente.

No se admitirán a trámite las peticiones de conciliación que se soliciten en relación con:

1. Los juicios en que estén interesados el Estado, las Comunidades Autónomas y las demás Administraciones Públicas, Corporaciones o Instituciones de igual naturaleza.

adingabearen egoitza non izan eta bertakoa.

[...] 22. Ahozko testamentu, kodizilo edo oroitidazkiak, edo notario publikoaren eskuespenik gabe egindako idazkiak eskritura publikoan jasotzeko eginbideetan, eta testamentu edo kodizilo itxien irekierarako gauzatu beharreko eginbideetan, epaile eskuduna izango da, aipatu agiriak, hurrenez hurren, zein lekutan egiletsi eta leku horretakoa.

23. Adingabeen edo ezgaituen ondasunak saltzeko baimenetan, epaile eskuduna izango da ondasunak zein lekutan izan eta leku horretakoa, edo ondasun horiek nortzuenak izan eta horien egoitzan dagoena.

24. Kode Zibilaren I. liburuko VIII. tituluaren ondoriozko absentiak eratorri jardunean, epaile eskuduna izango da Espainiako lurraldean absentea urtebetean bizi izan den azken lekua zein izan eta leku horretakoa, eta, halakorik izan ezean, azken egoitza non izan eta bertakoa.

25. Lege-lekatzeen inguruko informazioetan eta epaiketan agertzeko gaikuntzetan, betiere gaikuntza horiek zuzenbidez nahitaezkoak direnean, epaile eskuduna izango da horiek eskatzen dituenak egoitza non izan eta bertakoa.

26. Betidaniko egoerei buruzko informazioetan, epaile eskuduna izango da egitateak non gertatu eta bertan dagoena, edo, lekukotza eman behar duten lekukoak, behin-behinean bada ere, zein lekutan izan eta leku horretakoa.

Informazio horiek erreferentzia egiten badiote ondasun higiezinen eguneko egoerari, epaile eskuduna izango da ondasun horiek zein lekutan egon eta leku horretakoa.

27. Borondatezko jurisdikzio-egintza dela-eta egindako foroen apeoetan eta hainbanaketetan, eta ondasunen edukitzan, epaile eskuduna izango da finka gehienak zein lekutan egon eta leku horretakoa.

[...]

II. LIBURUA

AUZIBIDEZKO JURISDIKZIOA LEHENENGO TITULUA

ADISKIDETZEKO EKITALDIAK

460. artikulua

Epaiketa sustatu aurretik, adiskidetzeko ahaleginak egingo dira, lehen auzialdiko epaitegi edo bake-epaitegi eskudunean.

Ez da onartuko adiskidetze-eskaeren izapidetza, eskaerotan honako gai hauek ukitzen badira:

2. Estatuak, autonomia-erkidegoek eta gainerako herri-administrazioek, korporazioek edo izaera bereko erakundeek zein epaiketatan interesa izan eta horiek.

2. Los juicios en que estén interesados los menores y los incapacitados para la libre administración de sus bienes.
3. Los juicios de responsabilidad civil contra Jueces y Magistrados.
4. En general, los que se promuevan sobre materias no susceptibles de transacción ni compromiso.

[...]

Artículo 463

Los Jueces de Primera Instancia, o de Paz del domicilio y, en su defecto, los de la residencia del demandado serán los únicos competentes para conocer de los actos de conciliación.

Si el demandado fuere persona jurídica serán, asimismo, competentes los del lugar del domicilio del demandante siempre que en éste radique delegación, sucursal u oficina abierta al público y sin perjuicio de la adecuada competencia que resulte para caso de posterior litigio.

En las poblaciones en que hubiere más de un Juez de Primera Instancia la competencia se determinará por reparto.

Artículo 464

Si se suscitaren cuestiones de competencia o de recusación del Juez ante quien se promueve el acto de conciliación, se tendrá por intentada la comparecencia sin más trámites.

Artículo 465

El que intente el acto de conciliación acudirá al Juez de Primera Instancia o de Paz, presentando tantas papeletas firmadas por él, o por un testigo a su ruego si no pudiere firmar, cuantos fueren los demandados y una más, en cuyas papeletas se expresará: los nombres, profesión y domicilio del demandante y demandado; la pretensión que se deduzca y la fecha.

Artículo 466

El Juez de Primera Instancia o de Paz, en el día en que se presente la demanda o en el siguiente hábil, mandará citar a las partes, señalando el día y hora en que haya de tener lugar la comparecencia, procurando que se verifique a la mayor brevedad posible.

Entre la citación y la comparecencia deberán mediar al menos veinticuatro horas, cuyo término podrá, sin embargo, reducir el Juez si hubiese causas justas para ello.

En ningún caso podrá dilatarse por más de ocho días desde el en que se hayan presentado las papeletas.

3. Adingabeak eta ezgaituak euren ondasunak askatasunez administratzeko zein epaiketatan interesa izan eta horiek.

4. Erantzukizun zibileko epaiketak, epaile eta magistratuen aurka.

5. Orokorrean, transakzioa egiteko edo konpromisoa hartzeko modukoak ez diren gaiei buruz sustatzen direnak.

[...]

463. artikulua

Demandatuaren egoitza, eta, halakorik izan ezean, bizilekua non izan eta bertako lehen auzialdiko epaileak edo bake-epaileak izango dira eskudun bakarrak adiskidetzeko ekitaldien gaineko ardura izateko.

Demandatua pertsona juridikoa bada, eskudunak izango dira, gisa berean, demandatzailearen egoitza non izan eta bertakoak, baldin eta jendaurrean zabalik badago ordezkaritza, sukurtsal edo bulegoren bat, betiere gerora sor daitekeen auziaren gaineko eskumen egokiari kalterik egin gabe.

Lehen auzialdiko epaile bat baino gehiagoko herrietan, eskumena zehaztuko da banaketaren bidez.

464. artikulua

Eskumen- edo ezeste-arazoak sortzen badira, adiskidetzeko ekitaldia zein epaileren aurrean sustatu eta epaile horren inguruan, agerraldia saiatutzat joko da, izapide gehiagorik gabe.

465. artikulua

Adiskidetze-ekitaldia gauzatzeko ahaleginak egiten dituen lehen auzialdiko epailearengana edo bake-epailearengana joango da, berak sinatutako, edo, sinatu ezin badu, haren eskabidez lekuko batek sinatutako idazkiak aurkeztuta, zenbat eta bertan izandako demandatuak beste, eta bat gehiago; horietan adieraziko dira demandatzailearen eta demandatuaren izenak, lanbidea eta egoitza; uzia eta data.

466. artikulua

Lehen auzialdiko epaileak edo bake-epaileak, demanda aurkezten den egunean edo hurrengo egun baliodunean, alderdiei zitazioa egitea aginduko du; agerraldia egiteko eguna eta ordua zehaztuko dira, ahalik lasterren agerraldi hori egin dadin.

Zitazioaren eta agerraldiaren artean, hogeita lau ordu iragan beharko dira gutxienez; epe hori, aldiz, epaileak murriztu ahal izango du, horretarako arrazoi zuzenak badaude.

Inoiz ezin izango da egon zortzi egun baino gehiagoko atzerapenik, idazki horiek aurkeztu diren egunetik zenbatuta.

Artículo 467

El Secretario del Juzgado, o la persona que éste delegue, notificará la providencia de citación al demandado o demandados, arreglándose a lo que se previene en los artículos 260 y 261 de esta Ley respecto a todas las notificaciones; pero en lugar de la copia de la providencia, le entregará una de las papeletas que haya presentado el demandante, en la que pondrá una nota el Secretario, expresiva del Juez de Primera Instancia o de Paz que mandare citar, y del día, hora y lugar de la comparecencia.

En la papeleta original, que se archivará después, firmará el citado recibo de la copia, o un testigo a su ruego si no supiere o no pudiere firmar.

Artículo 468

Los ausentes del pueblo en que se solicite la conciliación, serán llamados por medio de oficio dirigido al Juez de Primera Instancia o de Paz del lugar en que residen.

Al oficio se acompañarán la papeleta o papeletas presentadas por el demandante, que han de ser entregadas a los demandados.

El Juez de Primera Instancia o de Paz del pueblo de la residencia de los demandados cuidará, bajo su responsabilidad, de que la citación se haga en la forma prevenida en los artículos anteriores, el primer día hábil después del en que se haya recibido el oficio, y devolverá éste diligenciado en el mismo día de la citación, o lo más tarde en el siguiente.

Este oficio se archivará con la papeleta, en los términos que previene el artículo anterior.

Artículo 469

Los demandantes y los demandados están obligados a comparecer en el día y hora señalados. Si alguno de ellos no lo hiciere ni manifestare justa causa para no concurrir, se dará el acto por intentado sin efecto, condenándole en las costas.

[...]

Artículo 471

El acto de conciliación se celebrará en la forma siguiente:

Comenzará el demandante exponiendo su reclamación y manifestando los fundamentos en que la apoye.

Contestará el demandado lo que crea conveniente, y podrá también exhibir cualquier documento en que funde sus excepciones.

Después de la contestación, podrán los interesados replicar y contrarreplicar, si quisieren.

467. artikulua

Epaitegiko idazkariak edo horren eskuordetza duenak zitazioaren probidentzia jakinaraziko dio demandatuari edo demandatuei, lege honen 260 eta 261. artikuluek jakinarazpen guztiei buruz ezarritakoaren arabera; hala ere, probidentziaren kopia eman beharrean, demandatzaileek aurkeztutako idazkietatik bat emango dio, eta, bertan, idazkariak ohar bat jarriko du, zitazioa egitea agindu duen lehen auzialdiko epailea edo bake-epailea adierazten duena, bai eta agerraldiaren eguna, ordua eta lekua adierazten dituen ere.

Jatorrizko idazkian, geroago artxibatuko den horretan kopiaren jaso-agiria sinatuko du, edo haren eskabidez lekuko batek, baldin eta sinatzen ez badaki edo sinatu ezin badu.

468. artikulua

Adiskidetzeta zein herritan eskatu eta herri horretako absenteak deituko dira, absenteok zein lekutan bizi eta bertako lehen auzialdiko epaileari edo bake-epaileari zuzendutako ofizioaren bidez.

Ofizioarekin batera, demandatzaileak aurkeztutako idazkia edo idazkiak bidaliko dira, eta horiek demandatuei eman beharko zaizkie.

Demandatuak bizi diren herriko lehen auzialdiko epaileak edo bake-epaileak bere erantzukizupean zainduko du zitazioa aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera egitea, ofizioa jaso eta hurrengo lehen egun baliodunean; eta, berori eginbidearen bidez jasota, bidali egingo du, zitazioaren egun berean, edo, beranduenez, hurrengo egunean.

Ofizio hori idazkiarekin batera artxibatuko da, aurreko artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

469. artikulua

Demandatzaileak eta demandatuak behartuta daude zehaztutako egunean eta orduan agertzera. Horietatik norbaitek ez badu hori egiten, ezta bertan agertzeko arrazoi zuzenik azaltzen ere, egintza saiaturat joko da, ondorenik gabe, hari kostuak ordaintzeko kondena ezarrita.

[...]

471. artikulua

Adiskidetzeko ekitaldia honela egingo da:

Hasteko, demandatzaileak bere erreklamazioa azalduko du eta horren oinarriak adieraziko ditu.

Demandatuak egoki deritzona erantzungo du, eta erakutsi ahal izango du, orobat, bere salbuespenen oinarri diren agirietatik edozein.

Eztabaidaren ondoren, interesdunek horri erantzun eta berrerantzun ahal izango diote, hori nahi izanez

Si no hubiera avenencia entre ellos, el Juez procurará averarlos.

Si no pudiere conseguirlo, se dará el acto por terminado sin efecto.

Artículo 472

Se extenderá sucintamente el acta de conciliación en un libro que llevará el Secretario del Juzgado.

Esta acta será firmada por todos los concurrentes, y por los que no supieren o no pudieren firmar, lo hará un testigo a su ruego.

Artículo 473

En el libro de que habla el artículo anterior se hará constar por diligencia, que suscribirán el Juez y los concurrentes, haberse dado por intentado el acto de conciliación a que no hayan concurrido los demandados.

Si, siendo varios, concurriese alguno de ellos, se celebrará con él el acto, y se tendrá por intentado sin efecto.

Artículo 474

Se dará certificación al interesado o interesados que la pidieren del acta de conciliación, o de no haber tenido efecto y dándose por intentado, en el caso de no comparecer los demandados o alguno de ellos.

Artículo 475

Los gastos que ocasionare el acto de conciliación serán de cuenta del que lo hubiere promovido; los de las certificaciones, del que las pidiere.

Artículo 476

Lo convenido por las partes en acto de conciliación se llevará a efecto por el mismo Juez ante el que se celebró, por los trámites establecidos para la ejecución de las sentencias dictadas en juicio verbal, cuando se trate de asuntos de la competencia del propio Juez.

En los demás casos tendrá el valor y eficacia de un convenio consignado en documento público y solemne.

Artículo 477

Contra lo convenido en acto de conciliación, podrá ejercitarse la acción de nulidad por las causas que invalidan los contratos.

La demanda ejercitando dicha acción deberá interponerse ante el Juez competente, dentro de los quince días siguientes a la celebración del acto, y se sustanciará por los trámites del juicio declarativo que corresponde a su cuantía.

[...]

gero.

Euren artean bat ez badatoz, epailea saiatuko da, adostasunera iris daitezen.

Lortzen ez badu, egintza amaitutzat joko da, ondorerik gabe.

472. artikulua

Adiskidetze-akta laburtuta jasoko da, epaitegiko idazkariak eramango duen liburu batean.

Akta hori agerle guztiek sinatuko dute, eta, sinatzen ez badakite edo ezin badute sinatu, horien ordezkariak sinatuko du.

473. artikulua

Aurreko artikuluan aipatzen den liburuan, eginbidearen bidez agerraraziko da, hori epaileak eta agerleek izenpetuta, demandatuak ez agertzearen ondorioz adiskidetzeko ekitaldia saiatutzat jo dela.

Demandatuak batzuk badira eta horietatik norbait agertzen bada, ekitaldia berarekin gauzatuko da, eta saiatutzat joko da, ondorerik gabe.

474. artikulua

Adiskidetze-aktaren ziurtagiria emango zaio hori eskatzen duen interesdunari edo interesduneei, edo, ondorerik izan ez eta saiatutzat jo bada, demandatuak edo horietatik norbait agertzen ez den kasuan.

475. artikulua

Adiskidetzeko ekitaldiaren ondorioz sortutako gastuak hori sustatu duenaren kontura izango dira; ziurtagirien ondoriozko gastuak, horiek eskatu dituenaren kontura.

476. artikulua

Alderdiek adiskidetze-ekitaldian adostu dutena gauzatuko du ekitaldi hori zein epaileren aurrean burutu eta horrek, hitzezko epaiketetan emandako epaiak betearazteko ezarri izapideen bidez, baldin eta epailearen beraren eskumeneko arazoak badira.

Gainerako kasuetan, agiri publiko eta solemnean jasotako hitzarmenaren balioa eta eragingarritasuna izango du.

477. artikulua

Adiskidetzeko ekitaldian adostutakoaren aurka, deuseztasun-akzioa egikaritu ahal izango da, kontratuak baliogabetzen dituzten arrazoien ondorioz.

Akzio hori egikaritzeko demanda epaile eskudunari jarriko zaio, egintza burutu eta hurrengo hamabost egunetan, eta berori gauzatuko da, horren muntari dagokion prozesu adierazlearen bidez.

[...]

Artículo 479

La presentación con ulterior admisión de la petición de conciliación interrumpirá la prescripción, tanto adquisitiva como extintiva, en los términos y con los efectos establecidos en la Ley desde el momento de la presentación.

Artículo 480

Los Jueces de Paz remitirán a los de Primera Instancia de sus respectivos partidos, para que se archiven en ellos, relaciones semestrales de los actos de conciliación convenidos.

[...] TÍTULO VIII

DE LA EJECUCIÓN DE LAS SENTENCIAS

[...] SECCIÓN 2.ª

De las sentencias dictadas por Tribunales extranjeros

Artículo 951

Las sentencias firmes pronunciadas en países extranjeros tendrán en España la fuerza que establezcan los Tratados respectivos.

Artículo 952

Si no hubiere Tratados especiales con la nación en que se hayan pronunciado, tendrán la misma fuerza que en ella se diere a las ejecutorias dictadas en España.

Artículo 953

Si la ejecutoria procediere de una nación en que por jurisprudencia no se dé cumplimiento a las dictadas por los Tribunales españoles, no tendrá fuerza en España.

Artículo 954

Si no estuviere en ninguno de los casos de que hablan los tres artículos que anteceden, las ejecutorias tendrán fuerza en España si reúnen las circunstancias siguientes:

- 1.ª Que la ejecutoria haya sido dictada a consecuencia del ejercicio de una acción penal.
- 2.ª Que no haya sido dictada en rebeldía.
- 3.ª Que la obligación para cuyo cumplimiento se haya procedido sea lícita en España.
- 4.ª Que la carta ejecutoria reúna los requisitos necesarios en la nación en que se haya dictado para ser considerada como auténtica, y los que las leyes españolas requieran para que haga fe en España.

Artículo 955

Sin perjuicio de lo dispuesto en los tratados y otras normas internacionales, la competencia para conocer de las solicitudes de reconocimiento y ejecución de sentencias y demás resoluciones judiciales y arbitrales extranjeras corresponde a los Juzgados de Primera Instancia del domicilio o lugar de residencia

479. artikulua

Adiskidetze-eskaeraren aurkezpenak eta geroko onarpenak preskripzioa geldiaraziko dute, eskuratzaillea izan zein azkentzaillea izan, hori aurkezten den unetik, lege honek ezarritako baldintzetan eta ondoreekin.

480. artikulua

Bake-epaileek epai-barruti egokietako lehen auzialdiko epaileei bidaliko dizkiete adostutako adiskidetze-ekitaldien seihileko zerrendak, haietan artxiba daitezten.

[...] VII. TITULUA

EPAIEN BETEARAZPENA

[...] 2. ATALA

Atzerriko auzitegiek emandako epaiak

951. artikulua

Atzerriko herrietan emandako epai irmoek Espainian izango dute kasuan kasuko itunek ezarritako indarra.

952. artikulua

Epaiok zein naziotan eman eta nazio horrekin egindako itun berezirik ez badago, Espainian emandako betearazpen- aginduek izango dute nazio horretan izan dezaketan indar bera.

953. artikulua

Betearazpen-agindua bada jurisprudentiaren ondorioz Espainiako auzitegiek emandakoak betearazten ez dituzten nazioetatik batekoa, horrek Espainian ez du indarririk izango.

954. artikulua

Betearazpen-agindua ez badago aurreko hiru artikuluetan azaldu kasuetatik batean ere, Espainian indarra izango du, honako ingurabar hauek biltzen baditu:

1. Betearazpen-agindua akzio penala egikaritzearen ondorioz ematea.
2. Auzi-ihesean ez ematea.
3. Bete behar den betebeharra Espainian legezkoa izatea.
4. Betearazpen-aginduaren agiriak betetzea hori emandako nazioan kautotzat hartzeko nahitaezkoak diren betekizunak, eta Espainiako legeetarako beharrezkoak direnak, Espainian fede emateko.

955. artikulua

Nazioarteko itunetan eta bestelako arauetan xedatutakoari kalterik egin gabe, atzerriko epaiak eta gainerako ebazpen judicial nahiz tartekaritzakoak aitortzeko eta betearazteko, eskuduna izango da aitortpena edo betearazpena zein alderdiren aurka eskatu eta horrek bizilekua edo egoitza duen lekuko

de la parte frente a la que se solicita el reconocimiento o ejecución, o del domicilio o lugar de residencia de la persona a quien se refieren los efectos de aquéllas; subsidiariamente la competencia territorial se determinará por el lugar de ejecución o donde aquellas sentencias y resoluciones deban producir sus efectos.

Artículo 956

Previa la traducción de la ejecutoria hecha con arreglo a derecho, después de oír, por término de nueve días, a la parte contra quien se dirija y al Fiscal, el Tribunal declarará si debe o no darse cumplimiento a dicha ejecutoria.

Contra este auto no habrá ulterior recurso.

Artículo 957

Para la citación de la parte a quien deba oírse, según el artículo anterior, se librará certificación a la Audiencia en cuyo territorio esté domiciliada.

El término para comparecer será el de treinta días.

Pasado dicho término, el Tribunal proseguirá en el conocimiento de los autos, aunque no haya comparecido el citado.

Artículo 958

Denegándose el cumplimiento, se devolverá la ejecutoria al que la haya presentado.

[...] TÍTULO IX

DE LOS ABINTESTATOS

[...] SECCIÓN 2.ª

De la declaración de herederos abintestato

[...]

Artículo 977

Practicadas las medidas indispensables para la seguridad de los bienes, ordenadas en la sección anterior, y sin perjuicio de continuar en las mismas diligencias la formación de inventario, se procederá en pieza separada a hacer la declaración de herederos abintestato.

Artículo 978

También podrá hacerse esta declaración a instancia de los interesados, sin que precedan dichas diligencias, en los casos en que no sea necesario ni se solicite la prevención del abintestato.

Artículo 979

La declaración de que determinadas personas, que sean descendientes, ascendientes o cónyuge del finado, son los únicos herederos abintestato se obtendrá mediante acta de notoriedad tramitada conforme a la legislación notarial por Notario hábil para actuar en el lugar en que hubiere tenido el

lehen auzialdiko epailea, edo haien ondoreek zein pertsona aipatu eta pertsona horrek egoitza edo bizilekua duen lekukoa; era berean, lurraldeeskumena modu subsidiarioan zehaztuko da, epai nahiz ebazpen horiek betearazi behar diren lekuaren ondorioz, edo euren ondoreak sortu behar dituzten lekuaren ondorioz.

956. artikulua

Zuzenbidearen araberako betearazpen- agindua gauzatu aurretik, eta bederatzai eguneko epean betearazpenagindua zein alderdiren aurka jarri eta hori nahiz Fiskaltza entzun ondoren, auzitegiek adieraziko du hori bete behar den ala ez.

Auto horren kontra ezin izango da beste errekurtsorik jarri.

957. artikulua

Aurreko artikulua arabera entzun beharreko alderdiari zitazioa egiteko, ziurtagiria luzatuko zaio alderdi horrek egoitza zein lurraldetan izan eta bertako audientziari.

Agerraldia egiteko epea hiru egunekoa izango da.

Epe hori igaro ondoren, auzitegiak auzi-paperean gaineko arduraz izaten jarraituko du, zitatua agertu ez arren.

958. artikulua

Betetzea ukatuz gero, betearazpen-agindua berriro itzuliko zaio hori aurkeztu duenari.

[...] IX. TITULUA

ABINTESTATOAK

[...] 2. ATALA

Abintestato-jaraunsleen inguruko adierazpena

[...]

977. artikulua

Ondasunen segurtasunerako nahitaezko neurriak burutu ondoren, horiek aurreko atalean aipatutakoak izanik, eta eginbide berberetan inbentarioa osatzeari kalterik egin gabe, pieza bananduan egingo da abintestato-jaraunsleen inguruko adierazpena.

978. artikulua

Adierazpen hori egin ahal izango da, orobat, interesdunek hala eskatzen badute, baina aipatu eginbideek lehentasuna izan gabe, abintestatoa aurretiaz eskatzea beharrezkoa ez denean edo eskatzen ez denean.

979. artikulua

Adierazpenak jasotzen badu pertsona zehatz batzuk, horiek hildakoaren ondorengoak izan, aurrekoak izan edo ezkontidea izan, abintestato-jaraunsle bakarrak direla, adierazpen hori eskuratu ahal izango da notario-legeriaren arabera izapidetza duen nabaritasun- aktaren bidez, baldin eta notarioa

causante su último domicilio en España y ante el cual se practicará la prueba testifical y documental precisa.

Artículo 980

Los demás herederos abintestato podrán obtener la declaración en vía judicial justificando debidamente el fallecimiento de la persona de cuya sucesión se trate y su parentesco con la misma y, con la certificación del Registro

General de Actos de Última Voluntad y con la información testifical, que dicha persona ha fallecido sin disposición de última voluntad y que ellos solos, o en unión de los que designen, son sus únicos herederos.

Para deducir esta pretensión no necesitarán valerse de Procurador pero sí de Letrado cuando el valor de los bienes de la herencia exceda de 400 000 pesetas.

Dicha información se practicará con citación del Fiscal, a quien se comunicará después el expediente con seis días para que dé su dictamen.

Si encontrare incompleta la justificación, se dará vista a los interesados para que subsanen la falta.

También se practicará el cotejo de los documentos presentados con sus originales cuando lo pidiere el Fiscal o el Juez lo estimare necesario.

Artículo 981

Practicadas por el Secretario las diligencias a que se refieren los artículos 980 y, en su caso, 984, el Juez, a propuesta de aquél, dictará auto, haciendo la declaración de herederos abintestato si la estimase procedente, o denegándola con reserva de su derecho a los que la hayan pretendido para el juicio ordinario.

Este auto será apelable en ambos afectos.

[...]

Artículo 984

Si, a juicio del Fiscal o del Juez, hubiere motivos racionalmente fundados para creer que podrán existir otros parientes de igual o mejor grado, el Juez mandará fijar edictos en los sitios públicos del lugar de su sede y en los pueblos de fallecimiento y naturaleza del finado, anunciando su muerte sin testar, y los nombres y grados de parentesco de los que reclamen la herencia, y llamando a los que se crean con igual o mejor derecho para que comparezcan en el juzgado a reclamarlo dentro de treinta días.

gaituta badago, kausatzaileak Espainian azken egoitza zein lekutan izan eta leku horretan jarduteko; gainera, notario horren aurrean gauzatuko da lekuko bidezko froga edo agiri-froga zehatza.

980. artikulua

Gainerako abintestato-jaraunselek adierazpena eskuratu ahal izango dute bide judicialaren bitartez, baldin eta behar bezala egiaztatzen badira oinordetza eragin duen pertsonaren heriotza eta horri begira haiek duten ahaidetasuna;

Azken Nahietako Egintzen Erregistro Nagusiak emandako ziurtagiriarekin, eta lekuko bidezko informazioarekin, egiaztatu beharko da aipatu pertsona azken nahiaren xedapenik gabe hil dela, bai eta horiek bakarrik, edo, izendatzen diren pertsonekin batera, jaraunsele bakarrik direla ere.

Uzi hori ondorioztatzeko ez dute prokuradorerik behar izango, bai, ordea, letradua, betiere jarauntsiko ondasunen balioa 400 000 pezetatik gorakoa denean.

Aipatu informazioa Fiskaltzaren zitazioarekin gauzatuko da, eta, ondoren, espedientearen gaineko komunikazioa egingo zaio, horrek sei eguneko epean bere irizpena eman dezan.

Beraren iritziz egiaztapena osagabea bada, interesdunei bista emango die, hutsegitea ongitzeko.

Berebat, aurkeztutako agiriak jatorrizkoekin alderatuko dira, Fiskaltzak hori eskatuz gero, edo epaileak uste badu beharrezkoa dela.

981. artikulua

Behin idazkariak 980. artikuluan, eta, hala denean, 984. artikuluan aipatu eginbideak gauzatuta, eta idazkariak berak hala proposatuta, epaileak autoa eman eta, abintestato-jaraunsele inguruko adierazpena egingo du, hori bidezkotzat jotzen badu, edo aukera hori ukatu egingo du; hala ere, eskubidea gorde egingo zaie epaiketa arrunterako hori egiten saiatu direnei.

Auto horren aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da bi ondoreetan.

[...]

984. artikulua

Fiskaltzaren edo epailearen aburuz, arrazoizko oinarridunak badaude gradu bereko edo hobeko ahaideak daudela uste izateko, epaileak aginduko du ediktuak finkatzea, haien egoitzan, eta hildakoaren heriotza-lekuan eta jaioterrian, ediktuotan haren testamenturik gabeko heriotza eta jarauntsia erreklamatzeko duten pertsonen izenak eta ahaidetasun-graduak iragarri; gainera, eskubide bera edo hobea dutela uste dutenak ere deitu egingo dira, horiek epaitegian ager daitezen eta hogeita hamar eguneko epean eskubide hori erreklama dezaten.

El Juez podrá ampliar este término por el tiempo que estime necesario, cuando por el punto de la naturaleza del finado o por otras circunstancias, se presuma que podrá haber parientes fuera del territorio nacional.

Los edictos se insertarán en el «Boletín Oficial» de la provincia o de la Comunidad Autónoma donde se siga el juicio. También se insertarán los edictos en uno de los periódicos de mayor circulación en la provincia, a criterio del Juez.

También se insertarán en el «Boletín Oficial del Estado» si, a juicio del Juez, las circunstancias del caso lo exigiesen.

[...]

Artículo 996

Luego que sea firme la resolución judicial por la que se haya hecho la declaración de heredero, cesará la intervención del Ministerio fiscal en estos juicios, y todas las cuestiones pendientes, o que puedan promoverse, se entenderán y sustanciarán con el heredero o herederos que hayan sido reconocidos por dicha resolución.

Artículo 997

Los que creyéndose con derecho a la herencia no se hubieren presentado en el juicio durante el término de los edictos podrán hacerlo antes de la convocatoria para la junta, acompañando los documentos que justifiquen su derecho, y sin que en ningún caso se pueda retroceder en el procedimiento.

No serán admitidos los que se presenten después de acordada dicha con vocatoria; pero les quedará a salvo su derecho para ejercitarlo en vía ordinaria contra los que fueren declarados herederos.

Artículo 998

Si no se hubiere presentado ningún aspirante a la herencia, o no fuere reconocido con derecho a ella ninguno de los presentados, se hará un tercer llamamiento por edictos, por el término de dos meses, en la forma prevenida para los anteriores, y con apercibimiento de tenerse por vacante la herencia si nadie la solicitare.

Artículo 999

Transcurrido el término del tercer llamamiento sin que nadie se haya presentado, o si fuesen declarados sin derecho los que hubieren acudido reclamando la herencia, se considerará ésta como vacante y, a instancia del Ministerio Fiscal se le dará el destino prevenido por las leyes.

Artículo 1000

En el caso del artículo anterior, se entregarán al Estado los bienes, con los libros y papeles que tengan relación con ellos.

Epaileak epe hori luza dezake, beharrezkotzat jotako denboran, baldin eta hildakoaren jaioterriaren ondorioz edo bestelako inguruabarren ondorioz uste bada nazioko lurraldetik kanpo ahaideak egon daitezkeela.

Ediktuak barneratuko dira epaiketa zein probintzian edo autonomia-erkidegotan egin eta bertako aldizkari ofizialean. Ediktuak barneratuko dira, orobat, epailearen iritziz, probintzian zabalkunde handienetakoak diren aldizkari batean.

Estatuko Aldizkari Ofizialean ere barneratuko dira, baldin eta epailearen ustez kasuan kasuko inguruabarren arabera hori nahitaezkoa bada.

[...]

996. artikulua

Behin jaraunsle-adierazpena ebazpen judicialaren bidez egin eta berori irmoa izanda, Fiskaltzaren esku-hartzea amaitu egingo da epaiketa horietan, eta ebazteke dauden arazo guztiak, edo susta daitezkeenak aztertu eta gauzatuko dira, aipatu ebazpenaren ondorioz aitortutako jaraunslearekin edo jaraunsleekin.

997. artikulua

Jarauntsirako eskubidea dutela uste dutenak ez badira epaiketara aurkezten ediktuak ematen diren bitartean, batzarako deialdia egin aurretik agertu ahal izango dira, euren eskubidea egiaztatzen duten agiriekin batera, eta prozeduran inoiz ere ezin izango da atzera egin.

Ez dira onartuko deialdi hori adostu ondoren aurkezten direnak; halaber, eskubide hori gordeko dute, bide arruntean jaraunsle adierazitakoaren aurka egikari dezaten.

998. artikulua

Jarauntsia eskuratzeko hautagairik aurkeztu ez bada, edo aurkeztutako inork ez badu aitortu halako eskubiderik duela, hirugarren deialdia egingo da ediktuen bidez, bi hilabeteko epean, aurretik aipatutakoentzat ezarri moduan eta jarauntsia bete gabe geratuko dela ohartaraziz, hori inork eskatzen ez badu.

999. artikulua

Hirugarren deialdirako epea igaro bada inor aurkeztu gabe, edo adierazten bada jarauntsia erreklamatzera joan direnek horretarako eskubiderik ez dutela, jarauntsia betegabe gisa hartuko da, eta, Fiskaltzak hala eskatuta, legeen araberako destinoa emango zaio.

1000. artikulua

Aurreko artikulua kasuan, ondasunak estatuari emango zaizkio, ondasun horiekin zerikusia duten liburu nahiz paperekin batera.

Respecto de los demás papeles, el Juez, oyendo sobre ello al Ministerio Fiscal, dispondrá que se conserven los que puedan ser de algún interés, inutilizando los restantes.

Los que deban conservarse se archivarán con los autos del abintestato, en pliego cerrado y sellado, en cuya cubierta se pondrá nota de su contenido, que rubricarán el Juez y el Ministerio Fiscal y firmará el actuario.

[...] **LIBRO III**
JURISDICCIÓN VOLUNTARIA PRIMERA PARTE
TÍTULO PRIMERO

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1811

Se considerarán actos de jurisdicción voluntaria todos aquellos en que sea necesaria, o se solicite la intervención del Juez sin estar empeñada, ni promoverse cuestión alguna entre partes conocidas y determinadas.

Artículo 1812

Para las actuaciones de jurisdicción voluntaria son hábiles todos los días y horas sin excepción.

Artículo 1813

Si el que promoviere el acto pidiere que se oiga alguna otra persona o lo solicitare el que tenga interés legítimo en él, o el Juez lo estimare conveniente, se otorgará la audiencia, poniendo de manifiesto los autos en la Escribanía por un breve término, que fijará el Juez según las circunstancias del caso.

Artículo 1814

En los casos en que la audiencia proceda podrá oírse también, en la forma prevenida en el artículo anterior, al que haya promovido el expediente.

Artículo 1815

Se oirá precisamente al Ministerio Fiscal cuando la solicitud promovida afecte a los intereses públicos; y cuando se refiera a persona o cosa cuya protección o defensa competan a la Autoridad.

El Ministerio Fiscal emitirá por escrito su dictamen, a cuyo efecto se le entregará el expediente.

Artículo 1816

Se admitirán, sin necesidad de solicitud ni otra solemnidad alguna, los documentos que se presentaren y las justificaciones que se ofrecieren.

Artículo 1817

Si a la solicitud promovida se hiciere oposición por alguno que tenga interés en el asunto, se hará contencioso el expediente, sin alterar la situación que tuvieren, al tiempo de ser incoado, los interesados y lo que fuere objeto de él, y se sujetará a los trámites establecidos para el juicio que corresponda, según la

Gainerako paperei dagokienez, epaileak xedatuko du, Fiskaltzak horren inguruan esan beharrekoa entzun ondoren, interesgarriak direnak gorde eta gainerakoak baliorik gabe gera daitezen.

Gorde behar direnak abintestatoaren auzi-paperekin batera artxibatuko dira, agiri itxian eta zigilua jarrita, eta horren estalkian edukiari buruzko oharra jarriko da; hori epaileak eta Fiskaltzak izenpetuko dute, eta idazkariak sinatuko du.

[...] **III. LIBURUA**
BORONDATEZKO JURISDIKZIOA LEHENENGO
ZATIA LEHENENGO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1811. artikulua

Borondatezko jurisdikzio-egintzat hartuko dira epailearen esku-hartzea noiz beharrezkoa izan edo noiz berari eskatu, eta kasu horiek guztiak, baldin eta ezagunak eta zehatzak diren alderdien artean arazorik ez bada sortu, ezta sustatu ere.

1812. artikulua

Egun eta ordu guztiak dira, salbuespenik gabe, borondatezko jurisdikzio-jardunerako baliodunak.

1813. artikulua

Egintza sustatu duenak edo horretan interes legitimoa duenak eskatzen badu beste pertsona bat entzutea, edo epaileak uste badu hori komenigarria dela, entzunaldia egingo da, auzi-paperekin epe labur baterako eskribautzan agerian jarrita; epea epaileak erabakiko du, kasuan kasuko inguruabarren arabera.

1814. artikulua

Entzunaldia bidezkoa denetan, entzun ahal izango da, berebat, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, espedientea sustatu duena.

1815. artikulua

Fiskaltza entzungo da, sustatutako eskaerak interes publikoen gain eragina duenean; eta agintari eskudunari dagokion babes edo defentsapeko pertsona edo gauza aipatzen denean.

Fiskaltzak idatziz emango du bere irizpena, eta espedientea emango zaio horren ondoretarako.

1816. artikulua

Eskaeraren nahiz bestelako betekizunen beharrik gabe onartuko dira aurkeztutako agiriak eta eskaintako egiaztapenak.

1817. artikulua

Sustatutako eskaeraren aurka jartzen bada gai horretan interesa duen norbait, espedientea auzibidez gauzatuko da, hori hasten den unean interesdunen egoera eta horren xedea aldatu gabe; eta kasuan kasuko epaiketarako ezarri diren izapideak aplikatuko dira, muntaren arabera.

cuantía.

Artículo 1818

El Juez podrá variar o modificar las providencias que dictare, sin sujeción a los términos y formas establecidas para las de la jurisdicción contenciosa.

No se comprenden en esta disposición los autos que tengan fuerza de definitivos y contra los que no se hubiere interpuesto recurso alguno.

Artículo 1819

Las apelaciones se admitirán siempre en ambos efectos al que hubiere promovido el expediente.

Artículo 1820

Las apelaciones que interpusieren los que hayan venido al mismo expediente, o llamados por el Juez, o para oponerse a la solicitud que haya dado motivo a su formación, serán admitidas en su sólo efecto.

Artículo 1821

La sustanciación de las apelaciones a que se refieren los precedentes artículos se acomodará a los trámites establecidos para las de los incidentes.

[...]

Artículo 1823

Los expedientes sobre actos de jurisdicción voluntaria no serán acumulables a ningún juicio de jurisdicción contenciosa.

Artículo 1824

Son extensivas a los actos de jurisdicción voluntaria, de que se hace especial mención en los títulos siguientes, las disposiciones contenidas en los artículos que preceden, en cuanto no se opongan a lo que se ordena respecto a cada uno de ellos.

TÍTULO II

DEL ACOGIMIENTO DE MENORES Y DE LA ADOPCIÓN

SECCIÓN PRIMERA

Reglas comunes

Artículo 1825

Las actuaciones reguladas en el presente Título se practicarán todas con intervención del Ministerio Fiscal. Los interesados podrán actuar bajo la dirección de Abogado.

Artículo 1826

El Juez podrá ordenar la práctica de cuantas diligencias estime oportunas para asegurarse de que la adopción, el acogimiento o su cesación resultarán beneficiosos para el menor.

Todas las actuaciones se llevarán a cabo con la conveniente reserva, evitando en particular que la familia de origen tenga conocimiento de cuál sea la adoptiva.

1818. artikulua

Epailak berak emandako probidentziak aldatu edo aldarazi ahal izango ditu, auzibidezko jurisdikzio-probidentzietarako ezarritako betekizun eta formen mende egon gabe.

Xedapen honen barnean ez dira sartzen behin betiko indarra duten autoak, ez eta inolako errekurtsorik izan ez dutenak.

1819. artikulua

Gora-jotzeak beti onartuko dira bi ondoreetan, espedientea sustatu duenarentzat.

1820. artikulua

Espedientera bertara etorritakoek jarri dituzten gora-jotzeak, edo epailak deitutakoek jarritakoak, edo horren eraketa eragin duen eskaeraren aurka jarritakoak, euren ondore bakarrean onartuko dira.

1821. artikulua

Aurreko artikuluetan aipatu gora-jotzeak gauzatzeko, intzidenteen gora-jotzeetarako ezarri izapideak aplikatuko dira.

[...]

1823. artikulua

Borondatezko jurisdikzio-egintzei buruzko espedienteak ezin izango dira auzibidezko jurisdikzioko epaiketetatik edozeinekin pilatu.

1824. artikulua

Hurrengo tituluetan beren beregi aipatzen diren borondatezko jurisdikzio-egintzetara hedatzeko modukoak dira aurreko artikuluetako xedapenak, haietako bakoitzari buruz agintzen denaren aurkakoak ez badira.

II. TITULUA

ADINGABEEN GAINEKO FAMILIA-HARRERA ETA ADOPTZIOA

LEHENENGO ATALA

Erregela erkideak

1825. artikulua

Titulu honetan araututako jardun guztia Fiskaltzaren esku-hartzearekin egingo da. Interesdunek abokatuaren zuzendaritzapean jardun ahal izango dute.

1826. artikulua

Epailak agindu ahal izango du egokitatz jotzen dituen eginbideak gauzatzea, horiek ziurtatzen badute adingabearentzat onuragarria dela adopzioa, familia-harrera edo horren azkentzea.

Jardun guztia isil-gorde egokiarekin egingo da, bereziki, jatorrizko familiak adopzioko familia zein den jakitea saihestuta.

El auto que ponga fin al expediente será susceptible sólo de apelación.

[...]

SECCIÓN 2.^a

Del acogimiento

Artículo 1828

La constitución del acogimiento, cuando requiera decisión judicial, será promovida por el Ministerio Fiscal o por la Entidad pública correspondiente.

El Juez, recabado el consentimiento de la Entidad pública, si no fuera la promotora del expediente, de las personas que reciban al menor y de éste desde que tuviera doce años, oír a los padres que no estuvieran privados de la patria potestad ni suspendidos en su ejercicio, o al tutor, en su caso, y al menor de doce años que tuviera suficiente juicio, y dictará auto en el término de cinco días, resolviendo lo procedente en interés del menor.

Cuando no haya podido conocerse el domicilio o paradero de los padres, o tutores o si citados no comparecieran, se prescindirá del trámite y el Juez podrá acordar el acogimiento.

La iniciación del expediente de cesación judicial del acogimiento tendrá lugar de oficio o a petición del menor, de su representante legal, de la entidad pública, del Ministerio Fiscal, o de las personas que lo tengan acogido.

El Juez podrá acordar la cesación del acogimiento tras oír a la Entidad pública, al menor, a su representante legal y a los que lo tengan acogido.

Contra el auto que acuerde la constitución del acogimiento o su cesación cabe recurso de apelación en un solo efecto.

SECCIÓN 3.^a

De la adopción

Artículo 1829

En la propuesta de adopción, formulada al Juez por la Entidad pública, se expresarán especialmente:

- Las condiciones personales, familiares y sociales y medios de vida del adoptante o adoptantes seleccionados y sus relaciones con el adoptando, con detalle de las razones que justifiquen la exclusión de otros interesados.
- En su caso, el último domicilio conocido del cónyuge del adoptante, cuando haya de prestar su consentimiento, y el de los padres o guardadores del adoptando.
- Si unos y otros han formalizado su asentimiento ante la Entidad pública o en documento auténtico.

Espedienteari amaiera ematen dion autoaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa bakarrik jar daiteke.

[...]

2. ATALA

Familia-harrera

1828. artikulua

Familia-harreraren eraketa, epailearen erabakia beharrezkoa denean, Fiskaltzak edo herri-erakunde egokiak sustatuko du.

Herri-erakundeari adostasuna eskatuta, hori ez bada espedientearen sustatzailea, edo adingabea hartzen duten pertsonena, eta, adingabeak hamabi urte dituenetik, horrena ere, entzungo ditu epaileak gurasoak, baldin eta guraso-ahalaz gabetuta ez badaude, ezta horren jardunean etenda egon ere; edo, tutorea entzungo du, halakoa dagoenean, eta hamabi urteko adingabea, behar besteko zentzutasuna duena. Autoa bost eguneko epean emango du, adingabearen intereserako bidezkoa dena ebatzita.

Gurasoen edo tutoreen egoitza edo egonlekua zein den jakitea ezinezkoa bada, edo, zitazioa egin arren, horiek agertu ez badira, ez da izapidetzarik egingo, eta epaileak familia-harrera erabaki ahal izango du.

Familia-harrera epaiketa bidez azkentzeko espedientea hasiko da, ofizioz, edo adingabeak, horren legezko ordezkariak, herri-erakundeak, Fiskaltzak edo adingabea harrerapean duten pertsonen hala eskatuta.

Epaileak erabaki ahal izango du familia-harrera azkentzea, behin herri-erakundea, adingabea, horren legezko ordezkaria eta adingabea harrerapean dutenak entzun eta gero.

Familia-harrera eratu edo hori azkentzea erabakitzen duen autoaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa bakarrik jar daiteke, ondore bakarrean.

3. ATALA

Adopzioa

1829. artikulua

Herri-erakundeak epaileari egindako adopzio-proposamenean, bereziki adieraziko dira:

- Egoera pertsonalak, familiakoak eta gizartekoak, eta hautatutako adoptatzailearen edo adoptatzaileen bizi-baliabideak eta adopziogaiarekin dituzten harremanak, bestelako interesdunak baztertzeko arrazoiak xehetasunez egiaztatuta.
- Hala denean, adoptatzailearen ezkontidearen azken egoitza ezaguna, horrek bere adostasuna eman behar badu, eta adopziogaiaren gurasoen edo zaintzaileen azken egoitza ezaguna.
- Batzuek nahiz besteek euren onespina herri-erakundean edo agiri kautoan formalizatu duten.

El asentimiento puede ser revocado si la revocación se notifica a la Entidad antes de la presentación de la propuesta del Juzgado.

En los supuestos en que no se requiere propuesta previa de la entidad pública, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 176 del Código Civil, la solicitud formulada al Juez por el adoptante expresará las indicaciones contenidas en los apartados anteriores en cuanto fuesen aplicables, y la alegación y pruebas conducentes a demostrar que en el adoptando concurre alguna de las circunstancias exigidas por dicho artículo.

Con la propuesta se presentarán los documentos a que se refieren los apartados anteriores, en su caso los informes de la Entidad colaboradora, y cuantos informes o documentos se juzguen oportunos.

Artículo 1830

El asentimiento a la adopción que hayan de prestar el cónyuge del adoptante y los padres del adoptando, habrá de formalizarse bien antes de la propuesta ante la correspondiente Entidad, bien en documento público, bien por comparecencia ante el Juez.

Si cuando se presenta la propuesta o solicitud de adopción hubieren transcurrido más de seis meses desde que se prestó el asentimiento, será necesario que éste sea renovado ante el Juez.

En las adopciones que exijan propuesta previa, en ningún momento se admitirá que el asentimiento de los padres se refiera a adoptantes determinados.

Artículo 1831

Si en la propuesta o la solicitud de adopción no constare el domicilio de los que deban ser citados, el Juez, en un plazo no superior a treinta días a contar desde la presentación del escrito, practicará las diligencias oportunas para la averiguación del domicilio.

En la citación a los padres se precisará la circunstancia por la cual basta su simple audiencia.

Si los padres del adoptando o el cónyuge del adoptante no respondieran a la primera citación, se les volverá a citar de nuevo, una vez que hayan transcurrido quince días naturales a contar desde la fecha en que deberían haberse presentado en el Juzgado.

Cuando no hayan podido conocerse el domicilio o paradero de alguno que deba ser citado o si citado no compareciere, se prescindirá del trámite y la adopción acordada será válida, a salvo, en su caso, el derecho que a los padres concede el artículo 180 del Código Civil.

El auto por el que se acuerde la adopción será susceptible de apelación en ambos efectos.

Artículo 1832

Las actuaciones judiciales a que se refieren los

© Egileak/ autores: Aiora Aristondo, Alberto Atxabal, Ana Otadui,

Arantza Libano, Anjel Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia, Javier Arrieta

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/ Texto en euskera e índices analíticos: Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua/ Universidad de Deusto. Instituto de Estudios Vascos

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/ Texto en euskera e índices analíticos: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila/ Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

Onespena ezeztatu daiteke, ezeztatze hori erakundeari jakinarazten bazaio, epaitegiari proposamena aurkeztu aurretik.

Herri-erakundearen aurretiatzko proposamena beharrezkoa ez bada, Kode Zibilaren 176. artikuluan xedatutakoaren arabera, adoptatzaileak epaileari egindako proposamenean adieraziko dira aurreko paragrafoetako aipamenak, horiek aplikatzeko modukoak diren neurrian, bai eta alegazioa eta aipatu artikuluko inguruabarretatik edozein adopziogaiari gertatu zaiola egiaztatzen duten frogak ere.

Proposamenarekin batera aurkeztuko dira aurreko paragrafoetan aipatu agiriak; hala denean, erakunde laguntzailearen txostenak; eta, orobat, egokitzat hartzen diren txosten eta agiri guztiak.

1830. artikulua

Adoptatzailearen ezkontideak eta adopziogaiaren gurasoek adopzioaren inguruan eman beharreko baiezkua formalizatu beharko da, bai erakunde egokian egindako proposamenaren aurretik, bai agiri publikoan, bai epailearen aurrean agerturik.

Adopzioaren proposamena edo eskaera aurkeztean sei hilabete igaro badira baiezkua eman denetik, nahitaezkoa izango da epaileari hori berriztatzea.

Aurretiatzko proposamena behar duten adopzioetan, ez da onartuko gurasoen baiezkoak adoptatzaile zehatz batzuei erreferentzia egitea.

1831. artikulua

Adopzioaren proposamenean edo eskaeran aipatu behar direnen egoitza ezaguna ez bada, epaileak, hogeita hamar eguneko epean, idazkia aurkeztu denetik zenbatuta, eginbide egokiak gauzatuko ditu egoitza zein den jakiteko.

Gurasoei egindako zitazioan zehaztuko da zein den entzunaldi soila egiteko arrazoia.

Adopziogaiaren gurasoek edo adoptatzailearen ezkontideak lehenengo zitazioari erantzuten ez badiote, berriro egingo zaie zitazioa, behin egutegiak hamabost egun igarota, epaitegian aurkeztu beharreko datatik zenbatzen hasita.

Ezinezkoa izan bada zitatu behar denaren edo zitatu izan baina agertu ez denaren egoitza edo egonlekua jakitea, izapidetza ez da egingo, eta erabakitako adopzioa baliozkoa izango da, hala denean, Kode Zibilaren 180. artikulua gurasoei emandako eskubideari kalterik egin gabe.

Adopzioa erabaki duen autoaren aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, ondore bietan.

1832. artikulua

Kode Zibilaren 179 eta 180. artikuluetan aipatu

artículos 179 y 180 del Código Civil se sustanciarán por los trámites del juicio declarativo ordinario que corresponda.

Durante la sustanciación del procedimiento el Juez adoptará las medidas de protección oportunas sobre la persona y bienes del adoptado menor o incapaz.

TÍTULO III

DEL NOMBRAMIENTO DE TUTORES Y CURADORES Y DEL DISCERNIMIENTO DE ESTOS CARGOS

SECCIÓN PRIMERA

Del nombramiento de tutores

Artículo 1833

Acreditado el nombramiento de tutor, hecho en disposición testamentaria por el padre o la madre del menor, mandará el Juez que se le discierna el cargo sin exigirle fianzas, si se le hubiere relevado de darlas.

Artículo 1834

También se mandará discernir el cargo de tutor al nombrado por cualquier persona que haya instituido heredero al menor, o dejándole manda o legado de importancia; pero la relevancia de fianza, en su caso, sólo se entenderá respecto a los bienes en que consista la herencia o legado.

Artículo 1835

No obstante lo dispuesto en los dos artículos anteriores, cuando sobrevengan razones muy fundadas, que el Juez apreciará atendidas las circunstancias especiales que en su caso ocurran, podrá exigir la prestación de fianza aun al tutor o curador nombrado por el padre o la madre, o por otra persona que haya dejado al menor manda o legado de importancia.

Artículo 1836

No habiendo tutor nombrado por el padre, la madre u otra persona que haya instituido heredero al menor, o dejándole manda de importancia, designará el Juez para este cargo al pariente a quien corresponda con arreglo a la Ley.

Artículo 1837

Prevía la aceptación del designado y la prestación de fianza, en su caso, se le discernirá el cargo.

Artículo 1838

A falta de pariente a quien designar, o no reuniendo el que hubiere las cualidades que exigen las leyes, lo cual se hará constar en el expediente, el Juez nombrará para el desempeño del cargo a la persona que merezca su confianza.

Artículo 1839

jardun judiziala gauzatuko da, kasuan kasuko epaiketa adierazle arruntaren izapideen bidez.

Prozedura gauzatzen den bitartean, epaileak babesneurri egokiak hartuko ditu adoptatutako adingabe edo ezgaituari berari buruz nahiz horren ondasunei buruz.

III. TITULUA

TUTOREAK ETA KURADOREAK IZENDATZEA, ETA KARGU HORIEK EMATEA

LEHENENGO ATALA

Tutoreak izendatzea

1833. artikulua

Tutorearen izendapena egiaztatu ondoren, izendapen hori adingabearen aitak edo amak testamentu-xedapenean eginez gero, epaileak aginduko du kargua ematea, inolako fidantzarik eskatu gabe, fidantza ematek askatua izan bada.

1834. artikulua

Tutorearen kargua eman beharko zaio, berebat, adingabea jaraunse izendatu duenak, edo adingabearentzat agintzari nahiz legatu garrantzitsua egin duenak izendatutakoari; baina, hala denean, fidantzatik askatzea ulertuko da, bakar-bakarrik, jarauntsia edo legatua osatzen duten ondasunei buruz.

1835. artikulua

Aurreko bi artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe, zalantza oso oinarridunak badaude, epaileak kontuan hartuko ditu kasu horretan gertatutako inguruabar bereziak, eta fidantza eskatu ahal izango dio aitak edo amak izendatutako tutoreari edo kuradoreari, edo adingabearentzat agintzari edo legatu garrantzitsua egin duen pertsonak izendatutakoari.

1836. artikulua

Aitak, amak edo adingabea jaraunse izendatu duenak, edo harentzat agintzari garrantzitsua egin duen beste pertsonak izendatutako tutorek ez badago, epaileak legearen arabera egoki den ahaidea izendatuko du kargu horretarako.

1837. artikulua

Izendatutakoak kargua onartu, eta, hala denean, fidantza eman eta gero, hari kargua emango zaio.

1838. artikulua

Izendapenerako ahaiderik ez badago, edo dagoenak ez baditu betetzen legeen arabera nahitaezko diren ezaugarriak, hori espedientean jasoko da, eta epaileak bere konfiantza merezi duen pertsona izendatuko du, horrek kargua bete dezan.

1839. artikulua

Si se hiciera oposición al nombramiento, se discutirá y resolverá por los trámites de los incidentes entre el que la promueva y el tutor nombrado, representando los intereses del menor el Ministerio Fiscal.

Durante la sustanciación del juicio quedará a cargo del tutor electo la custodia del menor y la administración de su caudal, bajo las garantías que parecieren suficientes al Juez.

Artículo 1840

Oponiéndose el tutor elegido a aceptar el cargo, se oirá al Ministerio Fiscal; y si éste está conforme, nombrará el Juez nuevo tutor.

Si el Ministerio Fiscal no se conformare, se discutirá y resolverá la oposición por los trámites de los incidentes, observándose lo prevenido en el párrafo 2 del artículo anterior.

SECCIÓN 2.ª

Del nombramiento de curadores para los bienes

Artículo 1841

Acreditado el nombramiento de curador hecho en disposición testamentaria por el padre o la madre del menor, o por otra persona extraña que lo hubiere nombrado heredero o dejado manda de importancia, acordará el Juez el discernimiento del cargo.

En la misma providencia decretará la prestación o relevación de la fianza, según los casos, en la forma prevenida para los tutores en los artículos 1833, 1834 y 1835.

Artículo 1842

El menor podrá oponerse al nombramiento de curador hecho por la persona que, no siendo el padre o la madre, le haya instituido heredero o dejado manda de importancia.

Si formulare dicha oposición, el Juez dará audiencia al Promotor fiscal en la forma prevenida en el artículo 1815, y encontrando fundada la oposición del menor, negará al nombrado el discernimiento del cargo, disponiendo que nombre otro con apercibimiento de nombrarlo de oficio para los bienes en que consista la herencia o legado.

Artículo 1843

En el caso de empeñarse cuestión sobre cualquiera de los particulares indicados en los artículos precedentes, se sustanciará por los trámites de los incidentes, representando en él al menor, en primer lugar, el tutor, si lo hubiere tenido; después el que haya sido su curador para pleitos; y, a falta de los anteriores, el Promotor fiscal del Juzgado.

Artículo 1844.

Izendapenari aurkakotasuna aurkezten bazaio, aurkakotasun hori eztabaidatu eta ebatziko da, hori sustatzen duenaren eta izendatutako tutorearen arteko intzidenteei dagozkien izapideen bidez, Fiskaltzak adingabearen interesak ordezkatuz.

Epaiketa gauzatzen den bitartean, aukeratutako tutorearen ardurapean geratuko dira adingabearen gaineko zaintza eta horren ondasunen administrazioa, epailearen iritziz behar bestekoak diren bermeen mende.

1840. artikulua

Aukeratutako tutorea kargua onartzearen aurka jartzen bada, Fiskaltza entzungo da; eta, hori ados badago, epaileak beste tutore bat izendatuko du.

Fiskaltza ados ez badago, aurkakotasuna eztabaidatu eta ebatziko da, intzidenteei dagozkien izapideen bidez, aurreko artikuluko 2. lerrokadan ezarritakoa ikusita.

2. ATALA

Ondasunetarako kuradoreak izendatzea

1841. artikulua

Kuradorearen izendapena egiaztatu ondoren, testamentu bidez hori egin duenean adingabearen aitak edo amak, edo arrotz batek, adingabea jaraunse izendatuz, edo harentzat agintzari garrantzitsua eginez, epaileak karguaren ematea erabakiko du.

Probidentzia berean dekretatuko du fidantza ematea edo fidantzatik askatzea, kasuan-kasuan, 1833, 1834 eta 1835. artikuluek tutoreentzat ezarritako moduan.

1842. artikulua

Adingabea kuradorea izendatzearen aurka jar daiteke, izendapen hori egin badu, aitak edo amak barik, adingabea jaraunse izendatu edo harentzat agintzari garrantzitsua egin dion pertsonak.

Aurkakotasun hori aurkeztuz gero, epaileak entzunaldia egingo dio fiskal sustatzaileari, 1815. artikulua ezarri moduan, eta, adingabearen aurkakotasuna oinarrituta bada, izendatuari karguaren ematea ukatuko dio; gainera, ohartaraziko dio, hark beste bat izendatzen ez badu, epaileak ofizioz izendatuko duela jarauntsia edo legatua osatzen duten ondasunetarako.

1843. artikulua

Aurreko artikuluetan aipatu zehaztasunetatik edozeini buruz arazoa sortzen bada, intzidenteei dagozkien izapideen bidez gauzatuko da arazo hori. Bertan, adingabea ordezkatuko du, lehenengo lekuan, tutoreak, halakorik izanez gero; ondoren, auzietarako kuradorea izan denak; eta, aurrekorik ez badago, epaitegiko fiskal sustatzaileak.

1844. artikulua

No habiendo curador nombrado por el padre, madre o persona que haya instituido heredero al menor o dejándole manda de importancia, corresponderá al mismo menor su nombramiento.

Artículo 1845

El nombramiento del curador ha de hacerse en comparecencia ante el Juez, acordada a instancia del menor.

Artículo 1846

Si la persona nombrada no reuniese las condiciones necesarias para el desempeño del cargo, podrá el Juez negarle el discernimiento, invitando al menor a que nombre otro en su lugar.

SECCIÓN 3.ª

Del nombramiento de curadores ejemplares

Artículo 1847

El Juez competente, a cuyo conocimiento llegue que alguna persona ha sido declarada, por sentencia firme, incapacitada para administrar sus bienes, le nombrará curador ejemplar encabezando el expediente con testimonio de dicha sentencia.

Artículo 1848

Cuando la incapacidad por causa de demencia no resulte declarada en sentencia firme, se acreditará sumariamente en un antejuicio y se nombrará un curador ejemplar interino, reservando a las partes el derecho que pueda asistirles en el juicio correspondiente.

Artículo 1849

El nombramiento de curador ejemplar deberá recaer por su orden en las personas que a continuación se expresan, si tuvieren la aptitud necesaria para desempeñarlo: padre, mujer, hijos, madre, abuelos y hermanos del incapacitado.

Artículo 1850

Si hubiere varios hijos o hermanos, serán preferidos los varones a las hembras, y el mayor al menor.

Concurriendo abuelos paternos y maternos, serán también preferidos los varones a las hembras; y en el caso de ser el mismo sexo, los que lo sean por parte del padre a los que lo fueren por la de la madre.

Artículo 1851

No habiendo ninguna de las personas indicadas en el artículo precedente, o no siendo aptos para la curatela, el Juez podrá nombrar a la que estimare más a propósito para desempeñarla, prefiriendo, si reunieren la necesaria capacidad, la que sea pariente o amigo del incapacitado o de sus padres.

Aitak, amak edo adingabea jaraunse izendatu duenak edo harentzat agintzari garrantzitsua egin duen pertsonak izendatutako kuradorerik ez badago, adingabeari dagokio hori izendatzea.

1845. artikulua

Kuradorearen izendapena epailearen aurreko agerraldian egin behar da, eta epaileak hartuko du erabakia, adingabeak hala eskatuta.

1846. artikulua

Izendatutako pertsonak ez baditu betetzen karguan aritzeko beharrezko diren baldintzak, epaileak karguaren ematea uka diezaioke, eta adingabeari gonbita luzatuko dio horren lekuan beste bat izenda dezan.

3. ATALA

Onbidezko kuradoreak izendatzea

1847. artikulua

Epaile eskudunak jakin badaki norbaiten inguruan, epai irmoaren bidez, ezgaiteta-adierazpena eman dela beraren ondasunak administratzeko, orduan onbidezko kuradorea izendatuko du harentzat, espedientearen goiburuan epai horren lekukotza jarrita.

1848. artikulua

Erotasunaren ondoriozko ezgaitasuna epai irmoaren bidez adierazi ez denean, hori epaiketa aurrekoan laburtuta egiaztatuko da, eta behin-behineko onbidezko kuradorea izendatuko da, alderdiei epaiketa egokian dagokien eskubidea gordeta.

1849. artikulua

Onbidezko kuradore izendatuko dira jarraian aipatuko diren pertsonak, hurrenkera honen arabera, baldin eta karguan aritzeko beharrezko gaitasuna badute: ezgaituaren aita, emaztea, seme-alabak, ama, aitona-amonak eta neba-arrebak.

1850. artikulua

Zenbait seme-alaba edo neba-arreba izanez gero, lehenespena izango dute gizonezkoek emakumezkoen aurrean, eta nagusiak gazteagoaren aurrean.

Aita eta amarengandiko aitona-amonak badaude, lehenespena izango dute, orobat, gizonezkoek emakumezkoen aurrean; sexu berekoak badira, lehenespena izango dute aitarengandikoek amarengandikoaren aurrean.

1851. artikulua

Aurreko artikuluan aipatu pertsonetatik inor ez badago, edo kuradoretzarako gai ez badira, epaileak izendatu ahal izango du kasu zehatz horretan aritzeko egokitzen irizten duena; eta lehenespena izango du, beharrezko gaitasuna izanez gero, ezgaituaren edo horren gurasoen ahaide edo

SECCIÓN 4.ª

Del nombramiento de curadores para pleitos

Artículo 1852

Los menores de veinticinco años que se hallen bajo la patria potestad serán representados en juicio por las personas que los tengan bajo su poder.

Los que no estén sujetos a la patria potestad, lo serán por sus tutores o curadores.

Artículo 1853

En el caso de que los padres del menor sujeto a la patria potestad, o sus tutores o curadores, no puedan representarlo en juicio con arreglo a las leyes se procederá a nombrarle un curador para pleitos.

Lo mismo se hará si el menor o incapacitado no tuviere nombrado tutor o curador.

Artículo 1854

Corresponde al Juez hacer el nombramiento de curador para pleitos a los menores de catorce y doce años, según sexo y a los incapacitados.

Artículo 1855

El Juez hará el nombramiento de curador para pleitos en un pariente inmediato del menor, si lo hubiere, en su defecto, en persona de su intimidad o la de sus padres; y no habiéndolas, o no teniendo la aptitud legal necesaria, en persona de su confianza que la tenga.

Artículo 1856

Los menores de veinticinco años, mayores de catorce y de doce, según sus respectivos sexos, podrán designar para curador para pleitos a la persona que crean conveniente, siempre que tenga la aptitud legal necesaria para representarlos en juicio. La designación se hará en comparecencia ante el Juez.

Artículo 1857

El Juez podrá negar el discernimiento si la persona propuesta por el menor no tiene la aptitud legal necesaria, en cuyo caso, le invitará a que proponga otra que la tenga, bajo apercibimiento de que no haciéndolo se le nombrará de oficio.

Artículo 1858

Si sobre el discernimiento del cargo se empeñare cuestión, se sustanciará por los trámites de los incidentes, representando al menor el Promotor fiscal.

Artículo 1859

Hecho el nombramiento de curador para pleitos, se le

adiskide denak.

4. ATALA

Auzietarako kuradoreak izendatzea

1852. artikulua

Hogeita bost urtekoak baino gazteagoak guraso-ahalaren mende daudenean, epaiketan haien ordezkari izango dira zein pertsonaren mende egon eta pertsona horiek.

Guraso-ahalaren mende ez daudenen kasuan, tutoreak edo kuradoreak izango dira ordezkari.

1853. artikulua

Gurasoek, adingabea guraso-ahalaren mende dagoenean, edo haren tutore edo kuradoreek, legeen arabera epaiketan ezin badute hura ordezkatu, auzietarako kuradorea izendatuko da.

Gauza bera egingo da, adingabe edo ezgaituarentzat tutorea edo kuradorea izendatu ez bada.

1854. artikulua

Epaileri dagokio auzietarako kuradorea izendatzea, hamalau eta hamabi urtekoak baino gazteagoak direnentzat, sexuen arabera, eta ezgaituentzat ere bai.

1855. artikulua

Epailak adingabearen zuzeneko ahaideren bat izendatuko du auzietarako kuradore, ahaideren bat izanez gero; eta, halakorik izan ezean, haren edo beraren gurasoen intimitatezko pertsonaren bat; eta, horiek ez badaude, edo beharrezko lege-gaitasuna ez badute, konfiantzako pertsonaren bat.

1856. artikulua

Hogeita bost urtekoak baino gazteagoak direnek, hamalau eta hamabi urtekoak baino nagusiagoak izanik, sexuen arabera, egokitzen hartzen duten pertsona izendatuko dute auzietarako kuradore, baldin eta horrek beharrezko lege-gaitasuna badu epaiketan horiek ordezkatzeko. Izendapena epailearen aurreko agerraldian egingo da.

1857. artikulua

Epaileak uka dezake karguaren ematea, adingabeak proposatutako pertsonak ez badu beharrezko lege-gaitasunik; kasu horretan, lege-gaitasun hori duten besteetatik edozein izendatzeko gonbita luzatuko dio agingabeari, hala egiten ez badu, ofizioz egingo dela ohartaraziz.

1858. artikulua

Kargua ematearen inguruan arazoren bat sortzen bada, arazo hori intzidenteei dagozkien izapideen bidez gauzatuko da, adingabea fiskal sustatzaileak ordezkatuta.

1859. artikulua

Auzietarako kuradorea izendatu ondoren, kargua ohi

discernirá el cargo en la forma ordinaria.

Artículo 1860

La representación del curador para pleitos cesará luego que se haya nombrado al menor o incapacitado, tutor o curador para bienes, o ejemplar, o haya desaparecido la incapacidad para representarlos.

SECCIÓN 5.ª

Del discernimiento de los cargos de tutor y curador

Artículo 1861

Hecho el nombramiento de tutor o curador para bienes o ejemplar, si fuere conocido el caudal del menor o incapacitado, dictará el Juez providencia mandando que se oiga al tutor o curador nombrado y al Ministerio Fiscal acerca de si se ha de entender el desempeño del cargo frutos por alimentos, o ha de señalarse para éstos una cantidad determinada.

Si el caudal del menor o incapacitado no fuere conocido, bastará, para los efectos de este artículo, que el tutor o curador nombrado presente un inventario simple del caudal del menor formado con citación del Ministerio Fiscal y asistencia de dos de los parientes más próximos de dicho menor, uno por cada línea, y si no los hubiere, de dos vecinos de arraigo designados por el Juez.

Artículo 1862

En vista de lo que expongan dicho curador y el Ministerio Fiscal, dictará el Juez el auto que corresponda, fijando la cantidad en que ha de consistir la pensión alimenticia, si opta por este medio, y determinando además en este caso el tanto por ciento que haya de abonarse al tutor o curador por el desempeño de su cargo.

Artículo 1863

El auto a que se refiere el artículo anterior se ejecutará sin perjuicio del recurso de apelación, que será admitido en un solo efecto.

Artículo 1864

Lo dispuesto en los artículos anteriores sólo será aplicable al caso en que el que haya nombrado heredero al menor no hubiere dispuesto otra cosa.

Artículo 1865

No estando relevado el tutor o curador nombrado de la obligación de dar fianza, se le requerirá para que presente la que el Juez estime necesaria para garantizar el importe de los bienes muebles, y la renta o producto de los inmuebles que constituyan el caudal del menor o incapacitado.

Artículo 1866

bezala emango zaio horri.

1860. artikulua

Auzietarako kuradorearen ordezkaritza azkenduko da, behin adingabeari edo ezgaituari ondasunetarako tutorea edo kuradorea, edo onbidezkoa, izendatu ondoren, edo ordezkatzeko ezgaitasuna desagertu denean.

5. ATALA

Tutorearen eta kuradorearen karguak ematea

1861. artikulua

Ondasunetarako edo onbidezko tutorea nahiz kuradorea izendatu ondoren, adingabearen edo ezgaituaren ondasunak ezagunak badira, epaileak probidentzia eman eta izendatutako tutorea edo kuradorea eta Fiskaltza entzutea aginduko du. Horiek adieraziko dute betetako karguagatik fruituak mantenuaren truk eman behar diren edo horietarako zenbateko zehatza ezarri behar den.

Adingabearen edo ezgaituaren ondasunak ezezagunak badira, nahikoa izango da, artikulua honen ondoretarako, izendatutako tutoreak edo kuradoreak adingabeak dituen ondasunen gaineko inbentario soila aurkeztea; hori osatuko da, Fiskaltzaren zitazioarekin eta aipatu adingabearen bi ahaide hurbilenen laguntzarekin, lerro bakoitzetik bat, eta, halakorik izan ezean, epaileak izendatutako bi auzotar aspaldikoen laguntzarekin.

1862. artikulua

Aipatu kuradoreak eta Fiskaltzak adierazten dutenaren arabera, epaileak kasuan kasuko autoa emango du, mantenu-pentsioaren zenbatekoa finkatuz, bide hori aukeratzeko badu; eta kasu horretan zehaztuko du tutoreari edo kuradoreari euren kargua betetzearen ondorioz eman beharreko ehunekoa.

1863. artikulua

Aurreko artikulua aipatu autoa betearaziko da, gora jotzeko errekurtsori kalterik egin gabe; hori ondore bakarrean onartuko da.

1864. artikulua

Aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatu beharrekoa izango da, bakarrik, adingabea jaraunse izendatzean bestelakorik xedatzen ez bada.

1865. artikulua

Izendatutako tutorea edo kuradorea fidantza emateko betebeharetik askatuta ez badago, horri eskatuko zaio epaileak beharrezkotzat jotzen duen fidantza aurkeztea, zertarako eta ondasun higigarrien zenbatekoa eta adingabearen edo ezgaituaren ondarea eratzten duten ondasun higiezinaren errenta edo produktua bermatzeko.

1866. artikulua

© Egileak/ autores: Aiora Aristondo, Alberto Atxabal, Ana Otadui, Arantza Libano, Anjel Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia, Javier Arrieta

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/ Texto en euskera e índices analíticos: Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua/ Universidad de Deusto. Instituto de Estudios Vascos

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/ Texto en euskera e índices analíticos: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila/ Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

Será admisible toda clase de fianza, excepto la personal.

Artículo 1867

La aprobación de la fianza se hará previa audiencia del Ministerio Fiscal.

En el auto de aprobación se dispondrá, según los casos:

1. La inscripción en el Registro de la Propiedad de los bienes raíces en que consista la fianza, cumpliendo lo dispuesto en la Ley Hipotecaria y en su Reglamento.
2. El depósito de los valores o efectos en que consista la fianza.
3. La práctica de cualquier otra diligencia que el Juez considere conveniente para la eficacia de la fianza y conservación de los bienes del menor o incapacitado.

Artículo 1868

Practicadas todas las diligencias acordadas y otorgada apud acta por el tutor o curador obligación de cumplir los deberes de su cargo, conforme a las leyes, el Juez acordará el discernimiento del cargo.

En el acta del discernimiento le conferirá facultad para representar al menor o incapacitado con arreglo a las leyes, y para cuidar de su persona y bienes, y dispondrá que se ponga el correspondiente testimonio del acta en el registro del Juzgado.

Artículo 1869

Si la fianza llegare a ser insuficiente, podrá el Juez, de oficio o a instancia de cualquier persona, mandar que se amplíe hasta la cantidad que, según su prudente arbitrio, sea necesaria para asegurar las resultas de la administración, guardándose las formalidades que en los artículos anteriores quedan prevenidas.

Artículo 1870

Hecho el discernimiento, se hará entrega del caudal del menor o incapacitado al tutor o curador, por inventario, que se unirá al expediente, si ya no obrare en él, a cuyo pie constará el recibo del expresado tutor o curador.

Igual entrega, y con la misma formalidad, se hará de los títulos y documentos que se refieran a dichos bienes.

Artículo 1871

A los curadores para pleitos, nombrados con arreglo a las disposiciones de esta Ley, se les discernirá el cargo, previo el otorgamiento de la obligación prevenida en el artículo 1868, sin exigirles fianza.

Artículo 1872

Onartzeko modukoa izango da edozein motatako fidantza, pertsonala izan ezik.

1867. artikulua

Fidantza onetsiko da, Fiskaltza aurretiaz entzunda.

Onespen-autoan xedatuko da, kasuan- kasuan:

1. Fidantzari dagozkion ondasun higiezinak inskribatzea Jabetza Erregistroan, betiere Hipoteka Legean eta beraren erregelamenduan xedatutakoa beteta.
2. Fidantza eratzen duten balore edo efektuak gordailutzea.
3. Epaileak egokitzen jotzen dituen eginbideetatik beste edozein egitea, fidantza eragingarria izan dadin eta adingabearen edo ezgaituaren ondasunak iraunaraz daitezten.

1868. artikulua

Behin tutoreak eta kuradoreak adostutako eginbide guztiak gauzaturuta, eta euren karguaren eginbeharrak betetzeko betebeharrak apud acta emanda, legeen arabera, epaileak kargua ematea erabakiko du.

Kargua emateko aktan, adingabea edo ezgaitua ordezkatzeko ahalmena legeen arabera emango zaio tutore edo kuradoreari, bai eta haien burua eta ondasunak zaintzekoa ere; eta aktari buruzko lekukotza egokia epaitegiaren erregistroan jasotzea xedatuko da.

1869. artikulua

Fidantza askieza bada, epaileak, ofizioz edo edozein pertsonak hala eskatuta, hori handitzea agin dezake, administrazioaren emaitzak ziurtatzeko, bere sen onaren arabera beharrezkoa den zenbatekoraino, aurreko artikuluetan ezarritako formalitateak gordeta.

1870. artikulua

Kargua eman ondoren, adingabearen edo ezgaituaren ondasunak inbentarioaren bidez emango zaizkio tutoreari edo kuradoreari; hori espedientera bilduko da, bertan jada ez badago, eta, oinean, tutorearen edo kuradorearen hartuagiria jasokoa da.

Modu berean emango dira, eta formalitate berberarekin, aipatu ondasunei buruzko tituluak eta agiriak.

1871. artikulua

Auzietarako kuradoreei, lege honetako xedapenen arabera izendatutakoei, kargua emango zaie, 1868. artikuluan ezarritako betebeharrak aurretiaz emanda, fidantzarik eskatu gabe.

1872. artikulua

Si el tutor o curador lo pidiere, se requerirá a los inquilinos, colonos, arrendatarios y demás personas a quienes corresponda, para que lo reconozcan como tal tutor o curador.

SECCIÓN 6.^a

Disposiciones comunes a las secciones anteriores

Artículo 1873

Toda cuestión que surja de las disposiciones contenidas en este Título y haya de resolverse en juicio contradictorio, según lo ordenado en el mismo, se sustanciará en la forma determinada para los incidentes.

Artículo 1874

Cuando los productos del caudal del menor no excedan de la cantidad fijada en el artículo 15 de esta Ley, para tener derecho a obtener la administración de justicia gratuita, la instrucción de los expedientes de tutela y curatela se hará en papel de pobres y sin exacción de derechos.

Al efecto, se sustanciará primero la pretensión de pobreza, sin perjuicio de que si el Juez creyere que conviene tomar alguna resolución urgente, la adopte desde luego de oficio o a instancia del representante del menor o del Ministerio Fiscal.

[...]

Artículo 1876

Dentro de los ocho primeros días de cada año, los Jueces examinarán dicho Registro, pedirán los informes que sean necesarios y acordarán según los casos:

1. El reemplazo de los tutores que hubieren fallecido.
2. Que rindan cuentas los tutores y curadores que deban darlas.
3. El depósito, en el establecimiento correspondiente, de los sobrantes de las rentas o productos de los bienes de los menores o incapacitados.
4. La imposición lucrativa de los fondos existentes, a que no deba darse aplicación especial.
5. Las demás providencias necesarias para remediar o evitar los abusos en la gestión de la tutela o curatela.

Artículo 1877

Sobre las cuentas que el tutor o curador rindiere durante el ejercicio de su cargo, se oírán siempre al Ministerio Fiscal.

Artículo 1878

No poniendo el menor, ni el Ministerio Fiscal, reparo a las cuentas, se aprobarán, con la cualidad de sin perjuicio del derecho que las leyes conceden al menor para reclamar cualquier agravio que en ellas

Tutoreak edo kuradoreak hala eskatuz gero, maizterrei, kolonoei, errentariei eta kasuan kasuko gainerako pertsoneri eskatuko zaie hori tutore edo kuradore gisa aitor dezaten.

6. ATALA

Aurreko atal guztietarako xedapenak

1873. artikulua

Titulu honen xedapenek sortutako arazo oro ebatzi behar bada alderdien arteko aurkakotasunaren ondoriozko epaiketan eta bertan agindutakoaren arabera, orduan intzidentetarako zehaztu moduan gauzatuko da arazo hori.

1874. artikulua

Adingabearen ondasunetako produktuak ez badira lege honen 15. artikuluan zehaztutako zenbatekoa baino handiagoak, doako justizia-administrazioa eskuratzeko eskubidea izan dadin, orduan txiroen paperean egingo da tutoretzari eta kuradoretzari buruzko espedienteen izapidetza, eskubideen ordainketarik gabe.

Ondore horretarako, lehenengo txirotasun-uzia gauzatuko da, epaileak uste badu presako ebazpenen bat hartu behar dela, hori ofizioz edo adingabearen ordezkariak edo Fiskaltzak hala eskatuta hartzeari kalterik egin gabe.

[...]

1876. artikulua

Urte bakoitzaren lehenengo zortzi egunetan, epaileek erregistro hori aztertuko dute, beharrezko txostenak eskatuko dituzte, eta, kasuan-kasuan, erabakiko dute:

1. Hildako tutoreen ordeze beste batzuk jartzea.
- [...] 2. Kontu-arrazoia eman behar dituzten tutoreek eta kuradoreek horiek ematea.
3. Soberakinak, adingabeen edo ezgaituen ondasunetako errentei edo produktuei dagozkienak, kasuan kasuko establezimenduan gordailutzea.
4. Aurretiaz dauden funtsen irabaziaz ezartzea, aplikazio berezirik eman behar ez bazaie horiei.
5. Beharrezkoak diren gainerako probidentziak, tutoretzaren edo kuradoretzaren kudeaketan izan daitezkeen abusuak eragotzi edo saihesteko.

1877. artikulua

Tutoreak edo kuradoreak bere karguan aritzean emandako kontu-arrazoiei buruz, beti entzungo da Fiskaltza.

1878. artikulua

Adingabeak eta Fiskaltzak kontu-arrazoien inguruan eragozpenik jartzen ez badute, horiek onetsi egingo dira; horrek ez dio kalterik egingo, hala ere, horietan kalteren bat izanez gero, legeek adingabeari ematen

pueda habérsele causado.

Artículo 1879

Los tutores y curadores, ya sean para bienes, ya para pleitos, no pueden ser removidos por un acto de jurisdicción voluntaria, aun cuando sea a solicitud de los menores.

Para decretar su separación, después de discernido el cargo, será indispensable oírlos y vencerlos en juicio.

TÍTULO IV

MEDIDAS PROVISIONALES EN RELACIÓN CON LAS PERSONAS

[...] SECCIÓN 2.^a

Medidas relativas al retorno de menores en los supuestos de sustracción internacional

Artículo 1901

En los supuestos en que, siendo aplicable un convenio internacional, se pretenda la restitución de un menor que hubiera sido objeto de un traslado o retención ilícita, se procederá de acuerdo con lo previsto en esta Sección.

Artículo 1902

Será competente el Juez de Primera Instancia en cuya demarcación judicial se halle el menor que ha sido objeto de un traslado o retención ilícitos.

Podrá promover el procedimiento la persona, institución u organismo que tenga atribuido el derecho de custodia del menor, la autoridad central española encargada del cumplimiento de las obligaciones impuestas por el correspondiente convenio y, en representación de ésta, la persona que designe dicha autoridad.

Las actuaciones se practicarán con intervención del Ministerio Fiscal y los interesados podrán actuar bajo la dirección de Abogado.

La tramitación del procedimiento tendrá carácter preferente y deberá realizarse en el plazo de seis semanas desde la fecha en que se hubiere solicitado ante el Juez la restitución del menor.

Artículo 1903

A petición de quien promueva el procedimiento o del Ministerio Fiscal, el Juez podrá adoptar la medida provisional de custodia del menor prevista en la Sección siguiente de esta Ley y cualquier otra medida de aseguramiento que estime pertinente.

Artículo 1904

Promovido el expediente mediante la solicitud a la que se acompañará la documentación requerida por el correspondiente convenio internacional, el Juez dictará, en el plazo de veinticuatro horas, resolución en la que se requerirá a la persona que ha sustraído

dioten erreklamazio- eskubideari.

1879. artikulua

Tutoreak eta kuradoreak, ondasunetarako izan zein auzietarako izan, ezin dira kendu borondatezko jurisdikzioegintzaren ondorioz, adingabeek hala eskatzen badute ere.

Horien banantzea dekretatzeko, behin kargua emanda, nahitaezkoa izango da eurok entzutea eta epaiketan garaile ateratzea.

IV. TITULUA

BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK PERTSONEI BEGIRA

[...] 2. ATALA

Adingabeak itzultzeko neurriak, nazioarteko osteen kasuetan

1901. artikulua

Nazioarteko hitzarmenen bat aplikatu beharrekoa izanik, adingabea itzultzea lortu nahi izan bada lekualdatzeko gaia izan delako edo legearen aurka atxiki izan delako, atal honetan ezarritakoaren arabera jardungo da.

1902. artikulua

Eskuduna izango da, lekualdatzeko gaia izan edo legearen aurka atxiki den adingabea zein mugape-judizialean egon eta bertako lehen auzialdiko epailea.

Prozedura sustatu ahal izango du adingabearen gaineko zaintza eratzikita duen pertsona, erakunde edo organismoak, kasuan kasuko hitzarmenean ezarritako betebeharrak betetzeko arduraren Espainiako agintaritzak nagusiak, eta, horren ordezkaririk gisa, agintaritzak izendatutako pertsonak.

Jarduna Fiskaltzaren esku-hartzearekin egingo da, eta interesdunek abokatuaren zuzendaritzapean jardun ahal izango dute.

Prozeduraren izapidetzak lehenespeneko izaera izango du, eta sei asteko epean egin beharko da, epaileari adingabea itzultzea eskatu zaionetik zenbatuta.

1903. artikulua

Prozedura sustatu duenak edo Fiskaltzak hala eskatuta, epaileak har dezake hurrengo atalean adingabea zaintzeko ezartzen den behin-behineko neurria, eta beharrezkotzat jotzen dituen segurtasun-neurrietatik beste edozein.

1904. artikulua

Espedientea eskaeraren bidez sustatu ondoren, eta eskabide horrekin batera nazioarteko hitzarmen egokiaren arabera nahitaezko diren agiriak aurkeztuta, epaileak hogeita lau ordutan emango du ebazpena; bertan, adingabea ostu edo atxiki duen

o retiene al menor, con los apercibimientos legales, para que en la fecha que se determine, que no podrá exceder de los tres días siguientes, comparezca en el juzgado con el menor y manifieste:

- a) Si accede voluntariamente a la restitución del menor a la persona, institución y organismo que es titular del derecho de custodia o, en otro caso,
- b) Si se opone a la restitución por existir alguna de las causas establecidas en el correspondiente convenio cuyo texto se acompañará al requerimiento.

Artículo 1905

Si no compareciese el requerido, el Juez dispondrá a continuación del procedimiento de su rebeldía citando a los interesados y al Ministerio Fiscal a una comparecencia que tendrá lugar en plazo no superior a los cinco días siguientes y decretará las medidas provisionales que juzgue pertinentes en relación con el menor.

En la comparecencia se oír al solicitante y al Ministerio Fiscal y en su caso y separadamente, al menor sobre su restitución.

El Juez resolverá por auto dentro de los dos días siguientes a contar desde la fecha de la comparecencia, si procede o no la restitución, teniendo en cuenta el interés del menor y los términos del correspondiente convenio.

Artículo 1906

Si compareciese el requerido y accediere a la restitución voluntaria del menor, se levantará acta, acordando el Juez, mediante auto, la conclusión del procedimiento y la entrega del menor a la persona, institución y organismo titular del derecho de custodia, así como lo procedente en cuanto a costas y gastos.

Artículo 1907

Si en la primera comparecencia el requerido formulase oposición a la restitución del menor, al amparo de las causas establecidas en el correspondiente convenio, no será de aplicación lo dispuesto en el artículo 1817 de esta Ley, ventilándose la oposición ante el mismo Juez por los trámites del juicio verbal. A este fin:

- a) En el mismo acto de comparecencia serán citados todos los interesados y el Ministerio Fiscal, para que expongan lo que estimen procedente y, en su caso, se practiquen las pruebas, en ulterior comparecencia, que se celebrará de conformidad con lo dispuesto en el artículo 730 y concordantes de esta Ley dentro del plazo improrrogable de los cinco días a contar desde la primera.
- b) Asimismo, tras la primera comparecencia el Juez oír, en su caso, separadamente al menor sobre su restitución y podrá recabar los informes que estime

pertsonari legezko ohartarazpenekin eskatuko zaio, zehaztutako datan, hurrengo hiru egunak gaintutu gabe, adingabearekin batera epaitegian agertzea eta hauek adieraztea:

- a) Adingabea zaintza-eskubidearen titular den pertsonari, erakundeari edo organismoari borondatez itzultzen dion, edo, bestela,
- b) Itzultze horren aurka dagoen, kasuan kasuko hitzarmenean ezarritako arrazoietatik baten ondorioz; orduan, hitzarmenaren testu hori agindeiarekin batera aurkeztuko da.

1905. artikulua

Agindei-hartzailea agertzen ez bada, epaileak prozeduraren ondoren xedatuko du hori auzi-ihesean egin dela; interesdunei eta Fiskaltzari agerraldirako zitazioa egingo die; agerraldi hori hurrengo bost egunetan izango da; eta adingabearekin zerikusia duten eta nahitaezkoztat jotzen dituen behin-behineko neurriak dekretatuko ditu.

Agerraldian, eskatzailea eta Fiskaltza entzungo dira, eta, hala denean eta bananduta, adingabea bera, horren itzultzeari buruz.

Epaileak hurrengo bi egunetan auto bidez ebatziko du, agerraldiaren datatik zenbatuta, adingabea itzultzea bidezkoa den ala ez, adingabe horren interesa eta kasuan kasuko hitzarmenaren betekizunak kontuan hartuta.

1906. artikulua

Agindei-hartzailea agertzen bada eta borondatez onartzen badu adingabea itzultzea, akta egingo da; epaileak auto bidez erabakiko du prozeduraren amaiera, eta adingabea zaintza-eskubidearen titular den pertsona, erakunde edo organismoari ematea, bai eta kostu eta gastuen inguruan bidezkoa dena ere.

1907. artikulua

Lehenengo agerraldian agindei-hartzailea adingabea itzultzearen aurka badago, kasuan kasuko hitzarmenean ezarritako arrazoiaren babesean, ezin izango da aplikatu lege honen 1817. artikulua; aurkakotasuna epailearen aurrean ebatziko da, hitzezko epaiketari dagozkion izapideen bidez. Helburu horretarako:

- a) Agerraldi-ekitaldian bertan, interesdun guztiei eta Fiskaltzari zitazioa egingo zaie, horiek bidezkoa dena azal dezaten, eta, hala denean, geroko agerraldian frogak egin daitezten; geroko agerraldi hori, 730. artikuluan xedatutakoaren eta lege honetan artikulua horrekin bat datozenen arabera egingo da, bost egunetako epe luzaezinean, lehenengo agerralditik zenbatuta.
- b) Gisa berean, lehenengo agerraldiaren ondoren, epaileak, hala denean, adingabea entzungo du, bananduta, bera itzultzeari buruz, eta,

pertinentes.

Artículo 1908

Celebrada la comparecencia y, en su caso, practicadas las pruebas pertinentes dentro de los seis días posteriores, el Juez dictará auto dentro de los tres días siguientes, resolviendo, en interés del menor y en los términos del convenio, si procede o no su restitución.

Contra dicho auto sólo cabrá recurso de apelación en un solo efecto, que deberá resolverse en el improrrogable plazo de veinte días.

Artículo 1909

Si el Juez resolviese la restitución del menor, en el auto se establecerá que la persona que trasladó o retuvo al menor abone las costas del procedimiento así como los gastos en que haya incurrido el solicitante, incluidos los del viaje y los que ocasione la restitución del menor al Estado de su residencia habitual con anterioridad a la sustracción, que se harán efectivos por los trámites previstos en el artículo 928 y concordantes de esta Ley.

En los demás supuestos, se declararán de oficio las costas del procedimiento.

SECCIÓN 3.ª

Medidas provisionales en relación con los hijos de familia

Artículo 1910

Para decretar las medidas provisionales en los casos a que se refiere el número 4 del artículo 1880, se necesitará:

1. Que lo solicite el interesado por escrito o de palabra, o si no pudiera hacerlo por sí, otra persona a su nombre, ante el Juez de Primera Instancia del domicilio del solicitante, ratificándose en todo caso en presencia judicial siempre que tenga capacidad para hacerlo.
2. Que el Juez adquiera el conocimiento de la certeza de los hechos, bien por la información que presente el interesado, bien por los datos que haya podido adquirir.

Artículo 1911

Podrán los Jueces, no obstante lo dispuesto en el artículo anterior, decretar la medida provisional de custodia del menor sin solicitud del interesado cuando les conste la imposibilidad en que se encuentre de formularla.

Artículo 1912

Estimando el Juez procedente la adopción de la medida provisional, designará la persona (o Institución) que haya de encargarse de la custodia del menor.

Artículo 1913

beharrezkotzat jotako txostenak eskatu ahal izango ditu.

1908. artikulua

Agerraldia gauzatu ondoren, eta, hala denean, behin froga guztiak hurrengo sei egunetan eginda, epaileak autoa emango du hurrengo hiru egunetan, eta, adingabearen intereserako eta hitzarmeneko betekizunen arabera, hori itzultzea bidezkoa den ala ez ebaztiko du.

Auto horren aurka gora jotzeko errekurtoa bakarrik jar daiteke ondore bakarrean, eta hogeit eguneko epe luzaezinean ebatzi beharko da errekurto hori.

1909. artikulua

Epaileak adingabearen itzulketa ebazten badu, autoan ezarriko du adingabe hori lekualdatu eta atxiki duenak ordaindu beharko dituela prozeduraren kostuak, bai eta eskatzaileak egindako gastuak ere, bidaiak dakartzanak barne, eta orobat, adingabe hori ostu aurretik, beraren ohiko bizilekua zein estatutan izan eta estatu horretara itzultzeak dakartzanak; horiek betearaziko dira, 928. artikuluan eta horrekin bat datozen horietan ezarritako izapideen bidez.

Gainerako kasuetan, prozeduraren kostuak ofizioz adieraziko dira.

3. ATALA

Behin-behineko neurriak familiako seme-alabei begira

1910. artikulua

1880. artikuluko 4. zenbakian aipatu kasuetan, behin-behineko neurriak dekretatzeko, beharrezkoa da:

1. Interesdunak hori idatziz edo ahoz eskatzea, edo, berak ezin badu egin, haren izenean beste norbaitek eskatzea, eskatzailearen egoitza zein tokitan izan eta toki horretako lehen auzialdiko epaileari; eskaera beti berretsiko da epailearen aurrean, baldin eta eskatzaileak hori egiteko gaitasuna badu.
2. Epaileak egitateen ziurtasuna lortzea, bai interesdunak aurkeztutako informazioaren bidez, bai berak eskuratu ahal izan dituen datuen bidez ere.

1911. artikulua

Aurreko artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, epaileek dekretatu ahal izango dute, adingabea zaintzeko behin-behineko neurria, interesdunak hori eskatu gabe, baldin eta ikusten badute hari hori egitea ezinezko zaiola.

1912. artikulua

Epaileak bidezkotzat jotzen duenean adopzioaren behin-behineko neurria, adingabearen gaineko zaintzaz arduratu behar den pertsona (edo erakundea) izendatuko du.

1913. artikulua

© Egileak/autores: Aiora Aristondo, Alberto Atxabal, Ana Otadui, Arantza Libano, Anjel Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia, Javier Arrieta

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/Texto en euskera e índices analíticos: Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua/Universidad de Deusto. Instituto de Estudios Vascos

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/Texto en euskera e índices analíticos: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila/ Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

Respecto a la entrega de ropas y cama, se estará a lo dispuesto en el artículo 1907.

Artículo 1914

Constituida la medida provisional, se nombrará un defensor judicial.

Artículo 1915

Hecho el nombramiento, se le entregarán los autos, a fin de que exponga y pida en el juicio correspondiente lo que convenga en defensa de aquél.

Artículo 1916

En el mismo auto en que se decreta la custodia de una persona conforme a las disposiciones de esta Sección, el Juez le señalara para alimentos provisionales la cantidad que prudencialmente crea necesaria, atendido el capital que le pertenezca o el que posea el que ha de darlos, cuyo pago se hará por mensualidades anticipadas.

Las pretensiones que puedan formularse una vez adoptadas dichas medidas, y mientras las mismas subsistan, referentes a los alimentos provisionales, se sustanciarán en la forma prevenida en el Título XVIII, Libro II, de esta Ley.

Artículo 1917

Para la seguridad del pago de los alimentos, en todo caso podrá acordar el Juez las medidas a que se refiere el artículo 1892.

[...]

TÍTULO VI

DEL MODO DE ELEVAR A ESCRITURA PÚBLICA EL TESTAMENTO O CODICILO HECHO DE PALABRA

Artículo 1943

A instancia de parte legítima podrá elevarse a escritura pública el testamento hecho de palabra.

Artículo 1944

Se entiende ser parte legítima, para los efectos del artículo anterior:

1. El que tuviere interés en el testamento.
2. El que hubiere recibido en él cualquier encargo del testador.
3. El que con arreglo a las leyes pueda representar sin poder, a cualquiera de los que se encuentren en los casos que se expresan en los números anteriores.

Artículo 1945

Si al otorgar el testamento de palabra se hubiere tomado nota o apunte de las disposiciones del testador, se presentará con la solicitud dicha nota o memoria; se expresarán los nombres de los testigos que deban ser examinados, y el del Notario, si

Arropak eta ohea emateari dagokionez, 1907. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

1914. artikulua

Behin-behineko neurria eratu ondoren, defendatzaile judiciala izendatuko da.

1915. artikulua

Behin izendapena eginda, auzi-paperak emango zaizkio, horiek epaiketa egokian azal ditzan eta haren defentsarako komenigarri dena eska dezan.

1916. artikulua

Atal honetako xedapenen arabera, norbaiten gaineko zaintza dekretatzen duen auto berean, epaileak behin-behineko mantenuko bere ustez beharrezkoa den zenbatekoa adieraziko du, horren kapitala edo mantenua eman behar duenari dagokiona kontuan hartuta; ordainketa hileko aurreratuetan egingo da.

Behin-behineko mantenuari erreferentzia egiten dioten neurri horiek hartu ondoren sortutako uziak, eta horiek indarrean dirauten bitartean, lege honetako II. liburuko XVIII. tituluaren ezarri moduan gauzatuko dira.

1917. artikulua

Mantenuaren ordainketa ziurtatzeko, epaileak beti hartu ahal izango ditu 1892. artikuluan aipatutako neurriak.

[...]

VI. TITULUA

AHOZKO TESTAMENTUA EDO KODIZILOA ESKRITURA PUBLIKOAN JASOTZEKO MODUA

1943. artikulua

Alderdi legitimoak hala eskatuta, eskritura publikoan jaso ahal izango da ahozko testamentua.

1944. artikulua

Alderdi legitimotzat hartzen da, aurreko artikulua ondoeetarako:

1. Testamentuan interesa duena.
3. Testamentuan testamentugilearengandik edozein enkargu jaso duena.
4. Legearen arabera ahalorderik izan gabe, aurreko zenbakietan adierazi kasuetan aurkitzen diren etatik edozein ordezkari deza.

1945. artikulua

Ahozko testamentua egitean oharra edo zirriborroa hartu bada testamentugileak egindako xedapenei buruz, ohar edo oroitidazki hori eskaerarekin batera aurkeztuko da; aztertu beharreko lekuko izenak ere adieraziko dira, eta notarioaren izena, baldin eta

hubiere concurrido al otorgamiento y por cualquier causa no lo hubiere elevado a escritura pública, y se manifestará el interés legítimo que tenga el que promueve el expediente.

Artículo 1946

El Juez dictará providencia mandando comparecer a los testigos, y al Notario, en su caso, en el día y hora que señale, bajo apercibimiento de multa, y de las demás correcciones que la desobediencia haga necesarias.

Artículo 1947

No concurriendo al acto alguno de los que deban ser examinados, sin alegar justa causa que se lo impidiere, el Juez lo suspenderá, señalará el día y hora en que ha de tener lugar; mandará hacer efectiva la multa, y conminará al desobediente con mayor corrección en el caso de reincidencia.

Artículo 1948

Cuando un testigo no compareciere por hallarse enfermo o impedido, podrá pedir el interesado que se traslade el Juzgado a la casa del enfermo, para recibirle declaración acto continuo de haber sido examinados los demás testigos.

Cuando un testigo estuviere ausente del partido judicial, podrá solicitar que se le examine por medio de exhorto, dirigido al Juez del pueblo de su residencia actual.

Artículo 1949

Los testigos y el Notario, en su caso, serán examinados separadamente, y de modo que no tengan conocimiento de lo declarado por los que les hayan precedido.

El actuario dará fe de conocer a los testigos.

Si no los conociere, exigirá la presentación de dos testigos de conocimiento.

Artículo 1950

También deberá acreditarse, si no constare por notoriedad, la calidad del Notario del otorgamiento en los casos en que hubiere concurrido.

Artículo 1951

Cuidará el Juez, bajo su responsabilidad, de que se exprese en las declaraciones la edad de los testigos y el lugar en que tuvieren su vecindad al otorgarse el testamento.

Artículo 1952

Cuando la voluntad del testador se hubiere consignado en alguna cédula o papel privado, se pondrá de manifiesto a los testigos para que digan si es la misma que se les leyó, y si reconocen por legítimas sus respectivas firmas y rúbricas, en el caso de haberlas puesto.

egilespenean bertan izan bada eta edozein arrazoiren ondorioz eskritura publikoan hori jaso ez badu; gainera, espedientea sustatu duenaren interes legitimoa azalduko da.

1946. artikulua

Epaileak probidentzia emango du lekukoak, eta, hala denean, notarioa, agertzeko aginduekin, zehaztutako egunean eta orduan, betiere isuna eta desobeditzearen ondoriozko gainerako zuzenketak ezarriko direla ohartaraziz.

1947. artikulua

Ekitaldira ez bada agertzen aztertu beharrekoetatik inor, agertzea eragozten dion arrazoi zuzena alegatu gabe, epaileak eten egingo du ekitaldi hori, eta zein egunetan eta ordutan gertatu behar den adieraziko du; isuna betearazpenekoa izatea aginduko du, eta desobeditu duena isun handiagoarekin zuzenduko du, bererortze-kasuan.

1948. artikulua

Lekukoren bat agertzen ez bada, gaixorik edo eragotzita egoteagatik, interesdunak eskatu ahal izango du epaitegia gaixoaren etxera lekualdatzea, gainerako lekuko guztiak aztertu ondoren, horren adierazpena jarraiko egintzan jasotzeko.

Lekukoren bat epai-barrutitik absente badago, bera exhortoaren bidez aztertzea eskatu ahal izango du; eskaera zuzenduko zaio oraingo bizilekua zein herritan izan eta bertako epaileari.

1949. artikulua

Lekukoak, eta, hala denean, notarioa, bananduta aztertuko dira, eta aurrekoek adierazi dutenaren berri ez izateko moduan.

Idazkariak fede emango du lekukoak ezagutzeari buruz.

Ezagutzen ez baditu, ezagutza-lekuko bi aurkeztea eskatuko du.

1950. artikulua

Notarioaren izaera ere egiaztatu beharko da horrek parte hartu badu eta nabaritasunaren ondorioz agerikoa ez bada.

1951. artikulua

Epaileak bere erantzukizunpean zainduko du adierazpenetan lekukoen adina aipatzea, bai eta testamentua egitean horrek zein tokitako auzotasuna duen ere.

1952. artikulua

Testamentugilearen borondatea zedula batean edo paper pribatuan jaso bada, lekukoei azalduko zaie, horiek esan dezaten euren irakurritako bera den, eta kasuan kasuko sinadurak eta izenpekoak legitimitzat hartzen dituzten, halakoak jarri diren kasuan.

Artículo 1953

Resultando clara y terminantemente de las declaraciones de los testigos:

1. Que el testador tuvo el propósito serio y deliberado de otorgar su última disposición.
2. Que los testigos, y el Notario, en su caso, han oído simultáneamente de boca del testador todas las disposiciones que quería se tuviesen como su última voluntad, bien lo manifestase de palabra, bien leyendo o dando a leer alguna nota o memoria en que se contuviese.
3. Que los testigos fueron en el número que exige la Ley, según las circunstancias del lugar y tiempo en que se otorgó, y que reúnen las cualidades que se requiere para ser testigo en los testamentos.

El Juez declarará testamento lo que de dichas declaraciones resulte, con la calidad de sin perjuicio de tercero, y mandará protocolizar el expediente.

Artículo 1954

Cuando resultare alguna divergencia en las declaraciones de los testigos, el Juez aprobará como testamento aquello en que todas estuvieren conformes.

Si la última voluntad se hubiere consignado en cédula presentada o escrita en el acto del otorgamiento, se tendrá como testamento lo que de ella resulte siempre que todos los testigos estén conformes en que es el mismo papel que se escribió, o presentó en aquel acto, aun cuando alguno de ellos no recuerde cualquiera de sus disposiciones.

Artículo 1955

La protocolización se hará en los registros del Notario de la cabeza de partido; y si hubiere más de uno, en el que designe el Juez.

TÍTULO VII

DE LA APERTURA DE TESTAMENTOS CERRADOS Y PROTOCOLIZACIÓN DE LAS MEMORIAS TESTAMENTARIAS

Artículo 1956

El que tenga en su poder algún testamento cerrado deberá presentarlo al Juez competente, tan luego como sepa el fallecimiento del otorgante.

Artículo 1957

Podrá también pedir su presentación el que tuviere conocimiento de haber sido otorgado el testamento y obrar en poder de tercero.

Siendo el reclamante persona extraña a la familia del finado, jurará que no procede de malicia, sino por creer que en él puede tener interés por cualquier concepto.

1953. artikulua

Lekukoek egindako adierazpenek argi eta erabat ondorioztatzen badute:

1. Testamentugileak bere azken xedapena benaz eta hala nahia egiteko asmoa zuela.
2. Lekukoek, eta, hala denean, notarioak, aldi berean entzun dituztela, testamentugilearen ahotik, horren azken nahizat hartu beharreko xedapen guztiak, ahoz, irakurriz, edo haren nahia barnean hartzen duen oharra edo oroitidazkia irakurraraziz.

3. Lekukoak legeak agindutako kopuruan agertu direla, testamentua zein lekutan eta denboran egin, eta horren inguruabarrak kontuan hartuta; eta testamentuan lekuko izateko ezarri ezaugarriak betetzen dituztela.

Orduan, epaileak testamentu gisa adieraziko du aipatu adierazpenetatik sortutakoa, hirugarrenari kalterik egin gabe; eta espedientea protokoloan jasotzea aginduko du.

1954. artikulua

Lekukoek adierazpenak euren artean bat ez badatoz, epaileak testamentu gisa onetsiko du horien artean bat datozen adierazpenetatik sortutakoa.

Azken nahia jaso bada egilespenegintzan aurkeztutako edo idatzitako zedulan, testamentutzat hartuko da zedula horretatik sortutakoa, baldin eta lekuko guztiak ados badaude paper berean idatzitakoarekin edo egintza hartan aurkeztutakoari buruz, horietako norbaitek xedapenen bat gogoratu ez arren.

1955. artikulua

Epai-barrutiko buru den herriko notarioaren erregistroetan egingo da protokoloan jasotzea; eta, bat baino gehiago badaude, epaileak izendatzen duen notarioaren erregistroan.

VII. TITULUA

TESTAMENTU ITXIAK IREKITZEA ETA TESTAMENTU-OROITIDAZKIAK PROTOKOLOAN JASOTZEA

1956. artikulua

Testamentu itxiren bat duenak epaile eskudunari aurkeztu behar dio, egilelearen heriotzaren berri izan bezain laster.

1957. artikulua

Horren aurkezpena eskatu ahal izango du, berebat, testamentua egin dela eta hirugarren baten eskuetan dagoela jakin dakienak.

Erreklamatzaillea pertsona arrotza bada hildakoaren familiari begira, zin egingo du ez duela maltzurkeriaz jardun, baizik eta horretan, edozein kontzepturen ondorioz uste izateagatik, interesa duela.

Artículo 1958

El actuario examinará en el acto el pliego que contenga el testamento, y pondrá diligencia de su estado, describiendo minuciosamente los motivos, si existieren, para poder sospechar que haya sido abierto o sufrido alguna alteración, enmienda o raspadura.

Esta diligencia la firmará también el presentante, y si no supiere o no quisiere, un testigo a su ruego en el primer caso, y dos testigos elegidos por el actuario en el segundo.

Artículo 1959

Acto continuo el actuario dará cuenta al Juez, el cual acreditado el fallecimiento del otorgante, acordará que para el día siguiente, o antes si es posible, se cite al Notario autorizante y a los testigos instrumentales.

Artículo 1960

Comparecidos los testigos, se les pondrá de manifiesto el pliego cerrado para que lo examinen y declaren bajo juramento si reconocen como legítima la firma y rúbrica que con su nombre aparece en él, y si lo hallan en el mismo estado que tenía cuando pusieron su firma.

Si alguno de los testigos no supiere firmar y lo hubiese hecho otro por él, serán examinados los dos, reconociendo su firma el que la hubiere puesto.

Artículo 1961

Los testigos serán examinados por orden sucesivo, e interrogados sobre la edad que tenían el día del otorgamiento.

Artículo 1962

Si alguno o algunos de los testigos hubieren fallecido o se hallaren ausentes, se preguntará a los demás si los vieron poner su firma y rúbrica, y se examinará además a otras dos personas que conozcan la firma y rúbrica del fallecido o ausente, acerca de su semejanza con las estampadas en el pliego.

Si esto último no pudiere tener lugar, será abonado el testigo en la forma ordinaria.

Artículo 1963

En el caso de haber fallecido el Notario que autorizó el otorgamiento, se cotejará por el Juez, asistido de peritos de su exclusivo nombramiento, el signo, firma y rúbrica del pliego o carpeta, con las estampadas en la copia que debe existir en el registro especial de los testamentos cerrados, para lo cual se trasladará el Juez al sitio en que se halle, y no siendo posible, dará comisión a quien corresponda.

Si el otorgamiento hubiere sido anterior a la Ley del Notariado, el cotejo se hará con otras firmas y signos indubitados del mismo Notario.

1958. artikulua

Idazkariak unean bertan aztertuko du testamentua jasotzen duen agiria, eta horren egoerari buruzko eginbidea gauzatuko du; eta, agiria ireki dela edo aldaketa, zuzenketa edo urradura izan duela susmatzeko arrazoiak xehetasunez deskribatuko ditu, halakoa izanez gero.

Eginbide hori aurkezleak ere sinatuko du, eta, ez badaki edo ez badu nahi, lehen kasuan, horren eskabidez lekuko batek sinatuko du, eta, bigarreanean, idazkariak aukeratutako bi lekukok.

1959. artikulua

Jarraiko egintzan, idazkariak kontu-arrazoiak emango dizkio epaileari; horrek, heriotza egiaztatu ondoren, erabakiko du, hurrengo egunerako, edo, lehenagorako, hori posible bada, notario eskuesleari eta lekuko instrumentalei zitazioa egitea.

1960. artikulua

Behin lekukoek agerraldia eginda, agiri itxia emango zaie, horiek agiria azter eta zin egin dezaten bertan beren izenarekin agertutako sinadura eta izenpekoa legitimotzat hartzen dituztela; eta sinadura hori noiz jarri eta orduko egoera bera dutela.

Lekukoren batek sinatzen ez badaki eta beste batek egin badu horren izenean, biak aztertuko dira, sinatu duenak bere sinadura aitorturik.

1961. artikulua

Lekukoak elkarren segidan aztertuko dira, eta egilespenaren egunean izandako adinari buruz galdetuko zaie.

1962. artikulua

Lekukoren bat edo batzuk hil badira edo absente badaude, besteei galdetuko zaie haien sinadura eta izenpekoa jartzen ikusi dituzten; eta, gainera, hildakoaren edo absentearen sinadura eta izenpekoa ezagutzen dituzten beste bi pertsona aztertuko dira, horiek agirian jasotakoekin duten antzekotasunari buruz.

Azken hori ezinezkoa izanez gero, lekukoa ohi bezala ontzat hartuko da.

1963. artikulua

Egilespena eskuetsi duen notarioa hil bada, epaileak, berak izendatutako adituen laguntzarekin, agirian edo karpetan jasotako zeinua, sinadura eta izenpekoa alderatuko ditu, testamentu itxien erregistro berezian izan behar den kopian jarrita daudenekin; horretarako, epailea erregistro hori dagoen tokira lekualdatuko da, eta, hori ezin bada, mandatua emango dio dagokionari.

Egilespena notariotza-legea baino lehenagokoa bada, notario beraren zalantzarik gabeko beste sinadura eta zeinuak alderatuko dira.

Artículo 1964

Quando el Notario y todos los testigos hubieren fallecido, se abrirá información acerca de esta circunstancia, de la época de la defunción, concepto público que merecieran, y de si se hallaban en el pueblo cuando se otorgó el testamento.

Artículo 1965

Podrán presenciar la apertura del pliego y lectura del testamento, si lo tienen por conveniente, los parientes del testador en quienes pueda presumirse algún interés, sin permitirles que se opongan a la práctica de la diligencia por ningún motivo, aunque presenten otro testamento posterior.

Artículo 1966

Practicadas las diligencias que quedan prevenidas, y resultando de ellas que en el otorgamiento del testamento se han guardado las solemnidades prescritas por la Ley, y la identidad del pliego, lo abrirá el Juez, y leerá para sí la disposición testamentaria que contenga.

Se suspenderá la apertura cuando en la misma carpeta, o en un codicilo abierto, hubiere dispuesto el testador que no se abra hasta una época determinada, en cuyo caso el Juez suspenderá la continuación de la diligencia y mandará archivar en el Juzgado las practicadas y el pliego hasta que llegue el plazo designado por el testador.

Artículo 1967

Verificada la lectura del testamento y codicilo por el Juez, lo entregará al actuario para que lo lea en alta voz, a no ser que contenga disposición del testador ordenando que alguna o algunas cláusulas queden reservadas y secretas hasta cierta época, en cuyo caso la lectura se limitará a las demás cláusulas de la disposición testamentaria.

Artículo 1968

Leído el testamento, dictará auto mandando que se protocolice con todas las diligencias originales de la apertura, en los registros del Notario que hubiere autorizado su otorgamiento, y que se dé copia de dicho auto al que lo hubiere presentado para su resguardo, si lo pidiere.

Artículo 1969

El que tenga en su poder alguna memoria testamentaria, deberá presentarla al Juez competente en cuanto sepa la defunción del otorgante, pidiendo su protocolización y manifestando la causa de que obre en su poder.

Con el escrito presentará documento en que acredite dicho fallecimiento, y exhibirá copia fehaciente del testamento, en que se indiquen su existencia y las

1964. artikulua

Notarioa eta lekuko guztiak hil badira, informazioa irekiko da inguruabar horri, heriotza-garaiari, eta horiek merezi zuten entzute publikoari buruz, bai eta testamentua egitean horiek herrian egon izanari buruz ere.

1965. artikulua

Agiriaren irekiera eta testamentuaren irakurketa ikusi ahal izango dute, komenigarri izanez gero, testamentugilearen ahaideek, uste bada horretan interesa dutela; ez zaie baimenduko, alabaina, eginbidea gauzatzearen aurka jartzea inolako arrazoen ondorioz, geroagoko beste testamentu bat aurkeztu arren.

1966. artikulua

Ezarrita geratzen diren eginbideak gauzatu ondoren, horiek ondorioztatzen badute testamentua egitean legeak agindu betekizunak izan direla eta agiria egiazkoa dela, orduan epaileak irekiko du hura, eta bere barrurako irakurriko du jasotako testamentu-xedapena.

Irekiera eten egingo da, testamentugileak, karpetan bertan edo kodizilo ireki batean, xedatzen badu garai zehatz bat iritsi arte hori ez irekitzea; kasu horretan, epaileak eten egingo du eginbidearen jarraipena, eta aginduko du gauzatutako eginbideak eta agiria epaitegian artxibatzea, testamentugileak zehaztutako epea iritsi arte.

1967. artikulua

Behin epaileak testamentuaren eta kodiziloaren irakurketa egiazaturik, idazkariari emango dio horrek ozen irakur dezan, salbu eta testamentugilearen xedapenen bat jasotzen denean, klausularen bat edo batzuk garai zehatz bat iritsi arte isil-gordean edo isilpean geratu behar direla aginduz; kasu horretan, testamentu-xedapenaren gainerako klausulak bakarrik irakurriko dira.

1968. artikulua

Testamentua irakurri ondoren, epaileak autoa emango du, testamentu hori, irekieraren jatorrizko eginbideekin batera, egilespena eskuetsi duen notarioaren erregistroetako protokoloan jasotzeko aginduz; gainera, auto horren kopia eman beharko zaio testamentua gorde dadin hori aurkeztu duenari, horrek hala eskatuz gero.

1969. artikulua

Testamentu-oroitidazkiren bat duenak epaile eskudunari aurkeztu beharko dio bera, egileslearen heriotzaren berri izan bezain laster, hori protokoloan jasotzea eskatuz eta berori edukitzeko arrazoa zein den azalduz.

Idazkiarekin batera aurkeztuko du heriotzaren egiaztapena jasotzen duen agiria, eta testamentuaren kopia sinesgarria erakutsiko du;

señales que debe reunir para ser considerada como legítima.

No presentando dichos documentos, dictará el Juez providencia mandando que se traigan a los autos.

Artículo 1970

A continuación del escrito se extenderá por el actuario diligencia suficientemente expresiva del estado en que se halle la memoria, y de las circunstancias por las que pueda juzgarse de su identidad con la indicada en el testamento.

Firmará esta diligencia el que presente la memoria; y si no supiere o no quisiere firmar, se hará lo que queda dispuesto en el párrafo 2 del artículo 1958.

En seguida se extenderá por el actuario testimonio de la cláusula o cláusulas del testamento exhibido que se refieran a la memoria, devolviéndoselo al que lo exhiba, quien firmará su recibo.

Artículo 1971

El Juez dictará providencia mandando que se proceda a la lectura de la memoria y confrontación de sus señales con las expresadas en el testamento, fijando el día y hora en que habrá de practicarse esta diligencia.

Los interesados en el testamento podrán concurrir a ella, a cuyo efecto se les instruirá de dicho señalamiento con la prevención de que su falta de asistencia no impedirá la celebración del acto ni será motivo para su nulidad, cualquiera que sea la causa que se alegue.

Artículo 1972

Si la memoria estuviere contenida dentro de un pliego cerrado procederá al Juez a su apertura y lectura en secreto, y no encontrando disposición del testador en que ordene que no se publique alguna cláusula hasta día o época determinada, la entregará al actuario para que la lea en voz alta.

Si contuviere dicha disposición, se omitirá la lectura de las cláusulas a que se refiera, y no se podrá dar testimonio de ellas quedando cerrada y archivada la memoria hasta que llegue el día o época determinados por el testador.

Artículo 1973

Acto continuo se procederá a la información y examen de las señales requeridas en el testamento para que deba tenerse como legítima la memoria, con las halladas en ésta.

De esta diligencia se extenderá la oportuna acta, que firmarán el Juez y los demás concurrentes interesados.

kopia horretan, beraren izatea eta legitimotzat hartzeko bildu beharreko ezaugarriak aipatuko dira.

Aipatu agiriak aurkezten ez badira, epaileak probidentzia emango du, horiek auzi-paperetara ekartzeko aginduarekin.

1970. artikulua

Idazkiaren ondoren, idazkariak eginbidea gauzatuko du, eta, horrek behar beste adieraziko du oroitidazkia zein egoeratan dagoen, bai eta beraren egiazkotasuna testamentuan aipatutakoarekin epaitu ahal den.

Eginbide hori sinatuko du oroitidazkia aurkeztu duenak; eta, sinatzen ez badaki edo ez badu nahi, 1958. artikulua 2. lerrokan xedatutakoa aipatuko da.

Idazkariak jarraian emango du erakutsitako testamentuaren klausulari edo klausulei buruzko lekukotza, horiek oroitidazkiari badagozkie; testamentua itzuliko zaio hori erakutsi duenari, eta azken horrek jasoagiria sinatuko du.

1971. artikulua

Epaileak probidentzia emango du, oroitidazkia irakurri eta horren ezaugarriak testamentuan adierazitakoekin erkatzeko aginduarekin, eginbide hori gauzatu beharreko eguna eta ordua finkatuta.

Testamentuan interesa dutenak bertan agertu ahal izango dira, eta, ondore horretarako, jarraibideak emango zaizkie, zehaztutako dataren inguruan; era berean, ohartaraziko zaie, interesdunak agertzen ez badira ere, horrek ez duela eragotziko egintza gauzatzea eta ez dela deuseztatzeko zioa izango, alegatzen den arrazoia edozein izanda ere.

1972. artikulua

Oroitidazkia agiri itxian badago, epaileari dagokio hori irekitzea eta isilpean irakurtzea; eta, ez bada agertzen testamentugilearen xedapenik, klausularen bat egun edo garai zehatz bat iritsi arte ez argitaratzeko agintzen duenik, epaileak idazkariari emango dio oroitidazkia, horrek ozen irakur dezan.

Halako xedapena agertuz gero, ez dira irakurriko xedapen horiei erreferentzia egiten dieten klausulak, eta ezin izango da eman horiei buruzko lekukotzarik; ondorenez, oroitidazkia itxita eta artxibatuta geratuko da, testamentugileak zehaztutako eguna edo garaia iritsi arte.

1973. artikulua

Jarraiko egintzan, informazioa eta azterketa egingo da testamentuan oroitidazkia legitimotzat hartzeko nahitaezko diren ezaugarriak buruz, horretan aurkitutakoekin.

Eginbide horren ondorioz, akta egokia egingo da; epaileak eta gainerako agerle interesdunek sinatuko dute hori.

Artículo 1974

Resultando del expediente que la memoria reúne las condiciones exigidas por el testador para que se la considere auténtica, se dictara auto mandando protocolizarla, sin perjuicio del derecho de los interesados para impugnarla en el juicio correspondiente.

Artículo 1975

La protocolización se hará en los registros del Notario que autorizó el testamento, y juntamente con éste.

Si esta circunstancia no fuere posible, se pondrá por el Notario en el registro del testamento, nota marginal expresiva de la existencia de la memoria y del libro y folio en que se halle protocolizada.

Artículo 1976

Cuando el testador haga referencia a alguna memoria escrita de su puño y letra, o sólo firmada por él, sin mencionar ninguna otra señal especial que la identifique, presentada que sea acompañada de los documentos expresados en el artículo 1969, el Juez mandará que sea reconocida por tres testigos que conocieran perfectamente la letra del testador, pudiendo también designar a parientes que no hayan sido favorecidos por dicha memoria.

Los testigos o parientes declararán, bajo juramento, que no abrigan duda racional de que el citado documento está escrito por el testador, y si estuviere sólo firmado, que es suya la firma y rúbrica.

Artículo 1977

Si además lo creyere el Juez conveniente, podrá confrontar, asistido por dos peritos, la letra, firma y rúbrica de la memoria, con otra indubitada del testador que obre en cualquier documento público u oficina del Estado.

Artículo 1978

Resultando auténtica la memoria, el Juez mandará protocolizarla en la forma establecida en el artículo 1974.

Artículo 1979

Cuando la presentación de la memoria tuviere lugar estando pendientes las diligencias para elevar a escritura el testamento otorgado de palabra, o para su apertura siendo cerrado, se unirá la memoria a dicho expediente, y en él se practicarán las diligencias que quedan expresadas para su protocolización.

TÍTULO VIII

DE LAS INFORMACIONES PARA DISPENSA DE LEY

Artículo 1980

© Egileak/autores: Aiora Aristondo, Alberto Atxabal, Ana Otadui, Arantza Libano, Anjel Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia, Javier Arrieta

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/Texto en euskera e índices analíticos: Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua/Universidad de Deusto. Instituto de Estudios Vascos

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/Texto en euskera e índices analíticos: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila/ Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

1974. artikulua

Espedientearen arabera, oroitidazkiak betetzen baditu testamentugileak eskatutako baldintzak, autoa emango da, hori protokoloan jasotzeko aginduarekin, interesdunek kasuan kasuko epaiketari hori aurkezteko duten eskubideari kalterik egin gabe.

1975. artikulua

Protokoloan jasotzea egingo da testamentua eskuetsi zuen notarioaren erregistroetan, eta testamentuarekin batera.

Inguruabar hori ezinezkoa izanez gero, notarioak testamentuaren erregistroan orri-bazterreko oharra jarriko du, eta bertan adieraziko du oroitidazkia badela, berori protokoloaren zein liburu eta foliotan dagoen jasota.

1976. artikulua

Testamentugileak erreferentzia egiten dionean berak eskuz idatzitako oroitidazkiari edo sinatuta bakarrik dagoenari, hori identifikatzen duen bestelako ezaugarri berezirik adierazi gabe, orduan, behin 1969. artikuluan aipatu agiriekin batera aurkeztuta, epaileak aginduko du testamentugilearen letra ondo ezagutzen duten hiru lekukok hori aitortzea; izendatu ahal izango ditu, berebat, oroitidazki horren ondorioz onuradun izan ez diren ahaideak.

Lekukoek edo ahaideek zinpean adieraziko dute aipatu agiria inongo dudarik gabe testamentugileak idatzi duela, eta, sinatuta bakarrik badago, sinadura eta izenpekoa testamentugilearenak direla.

1977. artikulua

Gainera, epailearen iritziz komenigarria bada, berak, bi adituren laguntzarekin, oroitidazkiaren letra, sinadura eta izenpekoa erkatu ahal izango ditu, testamentugilearen zalantzarik gabeko beste batekin, hori edozein agiri publikotan edo estatuko bulegotan jasota badago.

1978. artikulua

Oroitidazkia kautoa izanez gero, epaileak aginduko du hori protokoloan jasotzea 1974. artikuluan ezarritako moduan.

1979. artikulua

Oroitidazkia aurkezten bada ahozko testamentua eskrituran jaso edo testamentu itxia irekitzeko eginbideak gauzatu gabe, orduan oroitidazkia espedientera bilduko da, eta bertan gauzatuko dira protokoloan jasotzeko adierazi eginbideak.

VIII. TITULUA

LEGE-LEKATZEEN INGURUKO INFORMAZIOAK

1980. artikulua

No podrán recibirse las informaciones que tengan por objeto una dispensa de ley, sino en virtud de Real Orden comunicada al Juez por su superior inmediato.

Artículo 1981

Recibida en el Juzgado la Real Orden, se procederá a darle cumplimiento, mandando requerir al que la obtuvo para que preste la información correspondiente sobre los hechos expresados en su instancia, o sobre los prevenidos en la Real Orden.

Artículo 1982

Si durante la tramitación del expediente pidiera el interesado que se amplíe la justificación a otros hechos que no conocía cuando firmó la instancia o que crea ser de gran interés, podrá concederle el Juez si los estimare importantes.

Artículo 1983

Estas informaciones se recibirán con citación del Ministerio Fiscal.

También serán citadas las personas que tengan interés conocido y legítimo en el asunto, siempre que así se haya mandado en la Real Orden o lo solicite el recurrente.

Artículo 1984

El actuario dará fe de conocer los testigos.

Si no los conociere, exigirá que otros dos respondan del conocimiento de cada uno de ellos, y suscriban las declaraciones de los que se encuentren en este caso.

Artículo 1985

Si se hubiere mandado hacer la información con citación de alguna persona, se le oír, si citada, solicitare la entrega del expediente

También se admitirán los testigos y documentos que presentare sobre los hechos objeto de la información.

Artículo 1986

Cuando el citado no comparezca, transcurrido que sea el término que para ello se le hubiere designado, continuará la sustanciación del expediente con sólo la intervención del Ministerio Fiscal, a no ser que aquél fuere menor o incapacitado, en cuyo caso será indispensable su audiencia, y a este fin deberá compelerse a su representante legítimo para que, sin excusa alguna, proponga, dentro del término que el Juez señale, lo que al interés del menor o incapacitado convenga.

Artículo 1987

Si pendiente una información mandada recibir sin citación se presentare alguna persona oponiéndose a la dispensa para la cual se reciba, se le oír si tuviere conocido y legítimo interés en resistirla.

Ezin izango dira onartu xedetzat legea lekatzea duten informazioak, errege-aginduen bidez ez bada, zuzenean gorago dagoenak epaileari jakinarazita.

1981. artikulua

Behin epaitegian errege-agindua jasota, bete egingo da, eta hori eskuratu duenari aginduko zaio beraren eskaera-orrian adierazitako egitateei buruzko informazio egokia edo errege-aginduan ezarritako egitateei buruzkoa eman dezan.

1982. artikulua

Espedientearen izapideak egin bitartean, interesdunak eskatzen badu bestelako egitateak egiaztatzea, eskaera- orria sinatzean ezagutzen ez zituelako edo interes handia izan dezaketelako, epaileak horretarako baimena eman dezake, bere ustez horiek garrantzitsuak badira.

1983. artikulua

Informazio horiek Fiskaltzari egindako zitazioarekin batera jasoko dira.

Zitazioa egingo zaie, orobat, arazoan interes ezagun eta legitimoa dutenei, baldin eta errege-aginduan horrela agintzen bada edo errekurtsogileak hala eskatzen badu.

1984. artikulua

Idazkariak fede emango du lekukoak ezagutzeari buruz.

Horiek ezagutzen ez baditu, aginduko du beste bik horietako bakoitza ezagutzen dutelako erantzukizuna hartzea, eta kasu horretan daudenen adierazpenak sinatzea.

1985. artikulua

Informazioa gauzatzeko, pertsonaren bati zitazioa egitea agindu bada, hura entzun egingo da, zitazioa jaso eta espediente ematea eskatzen badu.

Onartuko dira, orobat, informazioaren gai diren egitateei buruz aurkeztutako lekukoak eta agiriak.

1986. artikulua

Zitazioa jaso duena agertzen ez denean, behin horretarako ezarri epea igarota, espedientearen gauzatzeak Fiskaltzaren esku-hartzearekin bakarrik egingo du aurrera, salbu eta hura adingabea edo ezgaitua denean; halakoa gertatuz gero, nahitaezkoa izango da bera entzutea, eta, helburu horretarako, haren ordezkari legitimoa behartuko da, inolako aitzakiarik gabe eta epaileak zehaztutako udalerrian, adingabearentzat edo ezgaituarentzat komenigarri dena proposa dezan.

1987. artikulua

Informazioa agindu bada zitaziorik egin gabe, eta, informazio hori oraindik burutu gabe dagoela, norbait aurkezte bada lekapearen aurka egiteko, hura entzungo da, aurka egiteko interes ezagun eta

Artículo 1988

Para la compulsa o cotejo de documentos será indispensable la asistencia del Ministerio Fiscal.

Si no hubiere de compulsarse más que parte del documento, o no fuere íntegra la copia que haya de cotejarse, el Ministerio Fiscal informará en la misma diligencia si en la parte que se omite hay o no alguna diferencia que modifique o se oponga a la parte testimoniada.

Artículo 1989

Practicadas las diligencias acordadas a instancia de parte, o mandadas en la Real Orden, se entregará el expediente al Ministerio Fiscal para que emita dictamen por escrito.

Artículo 1990

Si el Ministerio Fiscal hallare que no se ha acreditado el conocimiento de los testigos en la forma prevenida en el artículo 1984, o algún otro defecto notable, pedirá que se subsane.

También podrá pedir la práctica de las diligencias que estime necesarias para la calificación acertada de los hechos en que se funde la petición de la gracia, y la citación de las personas que, teniendo interés legítimo para oponerse a su concesión, no hubieren sido citadas oportunamente, debiendo haberlo sido con arreglo a lo dispuesto en el artículo 1983.

Artículo 1991

Hallando el Ministerio Fiscal completa la instrucción del expediente, dará dictamen sobre el fondo del negocio.

Artículo 1992

Evacuada la audiencia del Ministerio Fiscal, el Juez emitirá su dictamen, que remitirá con el expediente al Tribunal superior en la forma acostumbrada.

Artículo 1993

La Sala de gobierno oirá al Fiscal y subsanados los defectos que pueda tener el expediente, acordará el informe que deba elevarse al Gobierno, al cual remitirá original el expediente con copia certificada del dictamen fiscal.

Si algún Magistrado hubiere disentido de la mayoría, podrá extender por separado su dictamen, que se insertará en la consulta.

TÍTULO IX

DE LAS HABILITACIONES PARA COMPARECER EN JUICIO

Artículo 1994

legitimoa izanez gero.

1988. artikulua

Agiriak alderatzeko edo erkatzeko, nahitaezkoa izango da Fiskaltzaren laguntza.

Agiriaren zati bat bakarrik erkatu behar bada, edo alderatu beharreko kopia osoa ez bada, Fiskaltzak informazioa emango du, eginbidean bertan, agertu gabeko zatian ezberdintasunik dagoen ala ez adieraziz, desberdintasun horrek .lekukotza gisa emandako zatia aldatzen duela edo horren aurka jartzen dela.

1989. artikulua

Dela alderdiak hala eskatuta, dela errege-aginduan hala aginduta, eginbideak gauzatu ondoren espedientea Fiskaltzari emango zaio, horrek idatzizko irizpena eman dezan.

1990. artikulua

Fiskaltzak ikusten badu lekukoak ezagutzea ez dela 1984. artikuluan ezarri moduan egiaztatu, edo bestelako akats nabariren bat antzematen badu, horiek guztiak ongitzea eskatuko du.

Eskatu ahal izango du, berebat, bere ustez komenigarri diren eginbideak gauzatzea, horiek beharrezkoak badira graziazko eskaera zein egitatetan oinarritu eta egitate horien kalifikazio egokia egiteko; eta pertsona zehatzei zitazioa egitea ere eskatu ahal izango du, pertsonok, hura ematearen aurka jartzeko interes legitimoa izanik, zitazioa une egokian hartu ez badute, nahiz eta 1983. artikulua araber hori beharrezkoa izan.

1991. artikulua

Fiskaltzak ikusten badu espedientearen izapidetza eginda dagoela, irizpena emango du, negozioaren edukari buruz.

1992. artikulua

Fiskaltzaren entzunaldia egin ondoren, epaileak bere irizpena emango du; hori, espedientearekin batera, goragoko auzitegiari bidaliko dio, ohiko moduan.

1993. artikulua

Gobernu-salak Fiskala entzungo du, eta, behin espedienteak izan ditzakeen akatsak ongituta, gobernuari helarazi beharreko txostena erabakiko du; horrela, jatorrizko espedientea bidaliko dio gobernuari, Fiskaltzak prestatuko irizpenaren kopia ziurtatuarekin batera.

Magistraturen bat gehiengoarekin bat ez badator, bananduta eman ahal izango du bere irizpena, eta hori kontsultan barneratuko da.

IX. TITULUA

EPAIKETAN AGERTZEKO GAIKUNTZAK

1994. artikulua

© Egileak/ autores: Aiora Aristondo, Alberto Atxabal, Ana Otadui, Arantza Libano, Anjel Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia, Javier Arrieta

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/ Texto en euskera e índices analíticos: Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua/ Universidad de Deusto. Instituto de Estudios Vascos

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/ Texto en euskera e índices analíticos: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila/ Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

Necesitarán habilitación para comparecer en juicio, los hijos no emancipados, cuando no estén autorizados para ello por la Ley, o por el padre o la madre que ejerzan la patria potestad.

Artículo 1995

Sólo podrá concederse la habilitación cuando el menor no emancipado, siendo demandado o siguiéndosele gran perjuicio de no promover la demanda, se halle en alguno de los casos siguientes:

1. Hallarse los padres ausentes, ignorándose su paradero, sin que haya motivo racional bastante para creer próximo su regreso.
2. Negarse el padre y la madre a representar en juicio al hijo.

Artículo 1996

En estos expedientes se oirá siempre al Ministerio Fiscal.

Artículo 1997

En el auto en que se conceda la habilitación a un hijo no emancipado se mandará también que se le provea de defensor judicial.

Artículo 1998

No necesitará de habilitación el hijo para litigar con su padre o madre.

Artículo 1999

Todas las cuestiones suscitadas por las habilitaciones de menores no emancipados, se sustanciarán por el procedimiento establecido para los incidentes.

Artículo 2000

Mientras no recaiga sentencia firme, surtirá todos sus efectos la habilitación.

Artículo 2001

Cesarán los efectos de la habilitación luego que el padre o la madre se presten a comparecer en juicio por el hijo.

TÍTULO X

DE LAS INFORMACIONES PARA PERPETUA MEMORIA

Artículo 2002

Los Jueces admitirán y harán que se practiquen las informaciones que ante ellos se promovieren con tal que no se refieran a hechos de que pueda resultar perjuicio a una persona cierta y determinada.

Artículo 2003

No se admitirá ninguna información de esta clase sin oír previamente al Ministerio Fiscal.

Artículo 2004

Admitida la información, serán examinados, con

Emantzipatu gabeko seme-alabek epaiketan agertzeko gaikuntza beharko dute, horretarako legearen arabera baimenduta ez badaude, edo guraso-ahala duen aitak edo amak baimenik ematen ez badie.

1995. artikulua

Gaikuntza eman ahal izango da, bakarrik, emantzipatu gabeko adingabea demandatua izanik, edo, demanda sustatu ezean kalte handia harturik, hurrengo kasuetatik batean dagoenean:

1. Gurasoak absente egotea, egonlekuaren berririk izan gabe, eta behar besteko ziorik ez egotea horiek laster itzuliko direla uste izateko.
2. Aitak edo amak ezezkoa ematea semea edo alaba epaiketan ordezkatzeari.

1996. artikulua

Espediente horietan beti entzungo da Fiskaltza.

1997. artikulua

Emantzipatu gabeko semeari edo alabari gaikuntza emateko autoan aginduko da, berebat, horri defendatzaile judiziala ezartzea.

1998. artikulua

Semeak edo alabak ez du beharko gaikuntzarik, aitaren edo amaren aurka auzitan jarduteko.

1999. artikulua

Emantzipatu gabeko adingabeen gaikuntzaren ondorioz sortutako arazo guztiak gauzatuko dira, intzidenteetarako ezarri prozeduren bidez.

2000. artikulua

Epai irmorik ematen ez den bitartean, gaikuntzak ondore guztiak sortuko ditu.

2001. artikulua

Gaikuntzaren ondoreak amaituko dira, aitak edo amak semearen edo alabaren ordezkari gisa epaiketan bere burua aurkeztu ondoren.

X. TITULUA

BETIDANIKO EGOEREI BURUZKO INFORMAZIOAK

2002. artikulua

Epailleek onartu eta eginaraziko dituzte euren aurrean sustatutako informazioak, baldin eta informazio horiek ez badiete erreferentziarik egiten pertsona jakin eta zehatz batentzat kaltegarri izan daitezkeen egitateei.

2003. artikulua

Ez da onartuko mota horretako informaziorik, aurretiaz Fiskaltza entzuten ez bada.

2004. artikulua

Informazioa onartu ondoren, errekurtsogileak

citación del Ministerio Fiscal, los testigos que presentare la parte recurrente, al tenor de los hechos expresados en su solicitud.

El actuario dará fe del conocimiento de los testigos.

Si no los conociere, exigirá la presentación de dos testigos de conocimiento.

Artículo 2005

Practicada la información, se pasará el expediente al Ministerio Fiscal.

Si éste hallare que se han cometido defectos o que los testigos no reúnen las cualidades exigidas por la Ley, o que de sus declaraciones resulta que puede seguirse perjuicio a persona cierta y determinada, propondrá lo que en cada uno de estos casos estime procedente.

Artículo 2006

Si el Ministerio Fiscal solicitare la práctica de alguna diligencia y el Juez la encontrare procedente, dictará providencia mandando que se practique, y ejecutada que sea, volverá a pasar los autos al Ministerio Fiscal.

Si éste opinare que de la información podría seguirse perjuicio a persona cierta y determinada, y el Juez hallare fundado el dictamen fiscal, dictará auto declarando no haber lugar a su aprobación.

Artículo 2007

Pidiendo el Ministerio Fiscal que se apruebe la información, y hallándolo procedente el Juez, dictará auto aprobándola cuando ha lugar en derecho, y mandando, si se refiere a hechos de reconocida importancia, que se protocolice en los registros del actuario si éste fuere también Notario, y no siéndolo, en los de otro que resida en el pueblo cabeza del partido, a elección de la parte interesada, habiendo más de uno.

Si los hechos a que se haya referido la información no fueran de reconocida importancia, el Juez mandará que se archive en el oficio del actuario.

Artículo 2008

También se mandará en el mismo auto que se dé testimonio de la información, si lo pidiere, al que la hubiere promovido y a cualquiera otro que lo solicite para impugnarla en el juicio correspondiente, si pudiere causarle perjuicio.

Artículo 2009

Si antes de aprobarse la información se presentare alguno oponiéndose a ella por poder seguirse perjuicio, el Juez dictará auto mandando sobreseer las actuaciones de jurisdicción voluntaria, con

aurkeztutako lekukoak aztertuko dira, Fiskaltzaren entzunaldiarekin, eskaeran adierazitako egitateen arabera.

Idazkariak fede emango du, lekukoak ezagutzeari buruz.

Horiek ezagutzen ez baditu, horren berri duten bi lekuko aurkeztea eskatuko du.

2005. artikulua

Informazioa eman ondoren, espedientea Fiskaltzari emango zaio.

Horren aburuz akatsak egin badira, edo lekukoek ez badituzte betetzen legean nahitaezko diren ezaugarriak, edo adierazpenaren ondorioz kalte egin ahal bazaio pertsona jakin eta zehatz bati, orduan bidezkotzat jotzen duena proposatuko du, kasu horietatik bakoitzean.

2006. artikulua

Fiskaltzak eskatzen badu eginbideren bat gauzatzea, eta, epailearen ustez, hori bidezkoa bada, probidentzia emango du, hori gauzatzeko; behin probidentzia hori betearazita, auzi-paperak berriro Fiskaltzari emango zaizkio.

Fiskaltzaren aburuz, pertsona jakin eta zehatz bati kalte egin ahal bazaio informazioaren ondorioz, eta, epailearen iritziz, Fiskaltzaren irizpena oinarriduna bada, autoa emango du, informazioa ez onesteko adierazpenarekin.

2007. artikulua

Fiskaltzak eskatzen badu informazioa onestea, eta, epailearen ustez, hori bidezkoa bada, autoa emango du informazioa onetsiz, zuzenbidean hori bidezkoa denean, eta, aginduko du, garrantzi handiko egiteak aipatuz gero, idazkariaren erregistroetako protokoloetan jasotzea, hori notarioa ere bada; notarioa ez den kasuan, epai-barrutiko buru den herrian bizi denaren erregistroetan jasoko dira, eta, bat baino gehiago daudenean, interesa duen alderdiak egingo du hautaketa.

Informazioan aipatu egitateek ez badute halako garrantzirik, epaileak aginduko du hori idazkariaren ofizioan artxibatzea.

2008. artikulua

Auto berean aginduko da, orobat, informazioari buruzko lekukotza ematea informazioa sustatu duenari, horrek hala eskatuz gero, eta epaiketa egokian informazioa aurkaratzeko lekukotza hori eskatzen dutenetatik beste edozeini, baldin eta horrek kalte egin ahal badio.

2009. artikulua

Informazioa onetsi aurretik norbait horren aurka aurkeztu bada, horrek kalte egin ahal diolako, epaileak autoa emango du, borondatezko jurisdikzio-jarduna largesteko aginduarekin; alderdien

reserva a las partes de su derecho, para que lo ejerciten en el juicio que corresponda.

Artículo 2010

Las informaciones posesorias para inscribir algún derecho real sobre bienes inmuebles se practicarán con sujeción a las reglas establecidas en la Ley

Hipotecaria, Reglamento para su ejecución y demás disposiciones vigentes.

TÍTULO XI

DE LA ENAJENACIÓN DE BIENES DE MENORES E INCAPACITADOS Y TRANSACCIÓN ACERCA DE SUS DERECHOS

Artículo 2011

Será necesaria autorización judicial para enajenar o gravar los bienes de menores o incapacitados en los supuestos en que así lo establezca el Código Civil.

Artículo 2012

Para decretar la enajenación o gravamen será necesario:

1. Que la pidan:

a) El padre o la madre que tengan la patria potestad de su hijo menor.

Si éste fuere mayor de doce años, firmará también la petición.

b) El padre o la madre que tengan la patria potestad prorrogada sobre un hijo incapacitado, que prestará o no su conformidad, con arreglo a lo que disponga la sentencia declaratoria de la incapacidad.

c) El tutor de un menor de edad. Si éste fuera mayor de doce años deberá ser oído.

d) El tutor o el curador de un incapacitado, si así lo permite la sentencia declaratoria.

e) El sujeto a tutela o curatela, cuando no le haya sido prohibido o cuando lo haga con la conformidad del tutor o curador.

2. Que se exprese el motivo de la enajenación o del gravamen y la finalidad a que se debe aplicar la suma que se obtenga.

3. Que se justifique la necesidad o utilidad de la enajenación.

4. Que se oiga al Ministerio Fiscal.

Artículo 2013

Cuando la justificación a que se refiere el número 3 del artículo anterior haya de hacerse por medio de testigos, deberán ser tres, por lo menos, dando fe el actuario de conocerlos.

Si no los conociere, exigirá la presentación de dos testigos de conocimiento.

Esta justificación se practicará con citación del

eskubidea erreserbatuak geratzen da, epaiketa egokian hori egikaritu ahal izateko.

2010. artikulua

Ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealeen bat inskribatzeko, edukitza-informazioak emango dira, Hipoteka

Legearen, hori betearazteko erregelamenduaren eta indarrean dauden gainerako xedapenen mende.

XI. TITULUA

ADINGABEEN ETA EZGAIUEN ONDASUNAK BESTERENTZEA, ETA HAIEN ESKUBIDEEN GAINEAN TRANSAKZIOA EGITEA

2011. artikulua

Baimen judiziala beharrezkoa izango da adingabeen edo ezgaituen ondasunak besterendu edo kargatzeko, Kode Zibilak hori ezarri kasuetan.

2012. artikulua

Besterentzea edo kargatzea dekretatzeko, nahitaezkoa izango da:

1. Hori eskatzea:

a) Seme edo alaba adingabearen gaineko guraso-ahala duen aitak edo amak.

Adingabea hamabi urtekoa baino nagusiagoa izanez gero, berak ere eskaera sinatuko du.

b) Seme edo alaba ezgaituaren gaineko guraso-ahala luzatua duen aitak edo amak; ezgaitu horrek adostasuna emango du edo ez, ezgaitasuna adierazten duen epaiak xedatutakoaren arabera.

c) Adingabearen tutoreak. Adingabe hori hamabi urtekoa baino nagusiagoa izanez gero, hura entzun beharko da.

d) Ezgaituaren tutoreak edo kuradoreak, adierazpen-epaiak hori ahalbidetzen badu.

e) Tutoretzapean edo kuradoretzapean dagoenak, baldin eta horretarako debekurik ezarri ez bazaio, edo tutore nahiz kuradorearen adostasunarekin egiten badu.

2. Besterentzeko edo kargatzeko zioa adieraztea, bai eta lortutako kopurua zein helbururi aplikatu behar zaion ere.

3. Besterentzearen beharra edo onura egiaztatzea.

4. Fiskaltza entzutea.

2013. artikulua

Aurreko artikuluan 3. zenbakiak aipatu egiaztapena lekuko bidez egin behar bada, lekukoak, gutxienez, hiru izan behar dira, eta idazkariak fede emango du horiek ezagutzeari buruz.

Ezagutzen ez baditu, ezagutza-lekuko bi aurkeztea eskatuko du.

Egiaztapen hori Fiskaltzaren zitazioarekin egingo da.

